

ARRASATE PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 16a / 561. zenbakia



Aintzinako altzari, tresna eta bildumak

Oraingo asteburuan, Uarkapen azoka izango da



Haizetakoak 1,46 m².

Zenbaki hutsa baino, adimen zabala.



Automobil baten helburua da zu leku batetik bestera eramatea. Baina Peugeot 307 berrian garrantzitsuena ez da ailegatze hutsa, eramaten zaituen espazioa baino. Monobolumenaren leku zabalak eta Berlina baten arimak bat egiten dute 307aren egitura osatzeko, eta, horrela, barrualde zabala, modularitatea eta argitasuna ematen dizkizu. Termikoki isolatutako haizetakoak beroa pilatzea ekiditen du, eta sabaiaren altuerak eta aulkien arteko lekuak bidaiari-leku ezin hobe sortzen dute, erosotasunaren aukera guztietara irekia.

Peugeot 307 gama: gasolina 75 ZPtik 138 ZPra (1.981.000 pezetatik/1.906.05 eurotik). Diesela HDI 70 ZPtik 110 ZPra (2.298.000 pezetatik/13.811.26 eurotik)

PEUGEOT 307. EZ DA ZENBAKI HUTSA.

ETORMOBIL

Otaola etorbidea 22
Tel.: 943 20 09 66
EIBAR

EKOMOBIL

Zaldispe auzoa z/g
Tel.: 943 79 50 71
ARRASATE

307 
PEUGEOT

KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu erdialdeko peatonalizaziñue? Soluziñorik?



KARMEN URIBARREN
Erretiraue



JUAN KRUZ ARANBURU
Langillie



KONTXI GALLASTEGI
Langillie



ZURIÑE VADOS
Ikaslie



GORKA EZKIBEL
Langillie



EUGENIO GUZMÁN
Langillie

Bakotzak beria ikusi biher. Neuri gustetan jat, kotxiak baiño gehixago, ze kotxiak beti daukie inkonbenientie, eta kotxe barik hobeto. Dendie daukienek eukiko daue esatekuek.

Zalantza dauket. Gauza batzuetarako ondo dago, baiñe beste batzuetarako arazo haundixe da. Erdialdien bizi dienek asteburu arazuek badaukie, ezin badie pasau....


Ez dakit zein dan irtenbidie. Danondako hobiena topau biherko dogu. Nik hemen garajie dauket eta ez nago hain txarto, baiñe ordutegi edo alternatibaren bat topau biherko da.

Nik uste dot erdialdekuek arrazoa daukiela, ze kotxiak aparkau egin biherdie, eta nun aparkauko dittue ba? Nik uste dot jarri biherko leukiela hori berriro be aparketako.

Peatonala egin bai, baiñe kotxiendako ez dago aparkalekurik. Ondo dago peatonala egittie, jentiek erosketak egitteko, baiñe kotxiendako aparkalekuek egin biherko litzakez.

Niri, berez, erdialdie oiñezkuendako izetie gustetan jat. Zenbat eta automobil gutxiago egon, hobeto. Ni neu oso gustora nago peatonalizaziñuakin. Besterik barik.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ARAMAIO ERREKAREN KIRATSA Zarugalde inguruko bizilagunek baita GOITBko langileek ere Aramaio errearen egoera eta sortzen duen kiratsaren gainean kexa helarazi digute, Udalari eta Aldundiari jakinarazi diezaiegun behingoz zerbait egin dezatela. Ezagun da Deba erreka Gipuzkoako erreka zikinena dela eta, itxuraz, Aramaio erreka ere ez ei dabil urrunegi.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

KIROLA /11

ZAHARREN ETXETIK /17

Kooperatibismo Eguna munduan

Kooperatibismoaren Eguna egingo da azaroaren 21ean, eta Arizmendiarieta omenduko dute.

Azkarrena Behobian

Domekan, Zuhaitz Ezpeleta izan zen Behobia-Donostia maratoi erdian lehenengo arrasatearra.

Zaharrendako laguntza

Jende nagusi askok laguntzaile en premia izaten du, bakardadeari eta egunerokoari aurre egiteko.

ASTEKODATUA

168

168 ALEGAZIO EGITAMU OROKORRARI

Egitamu Orokorren erakusketak bukatu ondoren, alegazioak aurkezteko epea zabaldu zuten. Epea joan den egubakoitzean bukatu zen, eta ehun eta hirurogeita zortzi alegazio jaso dira.

BESTEKE SANA

“Elkarrizketa berberaren erabilera eta kontestualizazio desberdina egin izan dute HBk, Elkarrik eta

EAJk, baina hirurak kontzeptu berberaren gainean aritzeak akordioetarako tarte ere zabaldu beharko lukeela dirudi. (...) Ez dut gatazkarren konponbiderako urrats kualitatiborik espero konferentziatik, baina urratsen batzuk eman daitezke. Nazioarteko beste gatazka askotan ikusi dugunez, bakegintzan jarduteak ingeniariaritzan ikaragarria eskatzen du, eta 10 urte hauetan Elkarrik asko ikasi du horretaz. Borondatea behar da, baina ez da nahikoa. Mesfidantza apurka desegitea eta konfiantza eraikitzea da kontua, eta horretarako komunikazioa behar da.

XABIER LETONA
ELKARRI aldizkaria/01-11-01

HERRITARREN BERBAK/ Ander Elortondo



Gazte naiz eta... harro ala lelo nago?

Hi, gazte!, bizi haz? “Bizi edo existiru”, izaten da askotan horren erantzuna. Zoritzarrez batzuetan hala izaten da. “Hori hire kasua izango dok, nik ederto pasatzen jittuat egunak lagunekin”. Baita neuk ere, animalia sozialak baikara, lagunak, familia, lankideak... Benetan kurioa da ondo pasatzea eta lagunek duten harreman zuzena. Gainera, hitz politik ditugu momentu politik definitzeko, “aisia”. Harluxet hiztegian honela dio: Lanik edo zereginik gabeko denbora, atsedenezko, erosotasunezko egoera, bereziki lanetik kanpo gertatzen dena eta nahi den eran bete daitekeena.

Nahi den eran bete daitekeena, hori duk askatasuna. Behingoz badago zerbait irekia gurea dena. Guztiok hain ezberdinak izanik, zer egiten dik jendeak? Toki gutxi dudanez azaltzeko, gazteak bakarrik hartuko ditut kontuan. Gazte

guztiak egiten dutena ere asko da. Beraz %91,23k aste bukarran egiten duena azalduko dut. 1. Irten. Hau taberna, pub, diskoteka edo elkartzeko aproposa den antzeta egiten da. 2. Drogak hartu. Kafea, tabakoa, alkohola eta beste asko. Normalean ordena horretan. Protagonismoa betiere amaierako koktelean dago (pitxu, farru, pilulak, kartoiak...). 3. Etxera itzuli eta lo. Jan gutxi.

“Eta zer, hori txarra dok ala?”. EZ. Tristea ez da hori egitea, hori besterik

ez egitea da patetikoa. Bizitza luzea baita, eta osoa bizi behar da, bere aisia barne. Gazte horiek gauetan zahar bat mozkorrik ikustean barre egiten diote edo nazka ematen die zahar gaixoak. Bizi osoan hori besterik egin ez duenari, zer eskatu? Aisia hain libre izanda, zergatik aukeratu beti gauza bera? Benetan libre aukeratu al da zure aisia? Egin gura duzuna, zure aisia (bizia) da eta.

“Benetan libre aukeratu al da zure aisia? Egin gura duzuna, zure aisia (bizia) da eta”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna z/g
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera,
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla,
Izakun Bolinaga,
Natali Martínez
Imanol Elortza
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.000 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaio
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 16**
Azkoaga, Ferrerías 5. 943 79 15 15
- ZAPATUA, 17**
Corcuera, Maisu Aranbarri 1 . . . 943 79 22 26
- DOMEKA, 18**
Irizar, Erguin 11. 943 79 12 39
- ASTELEHENA, 19**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- MARTITZENA, 20**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 21**
A.Ruiz, Maala 31. 943 79 14 09
- EGUENA, 22**
A.Morales, Araba etorb. 17. 943 79 18 65

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIEETXAK**
Arrasateko Eskualde-Ospitalea . . 943 03 53 00
Igalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

- LARRIALDIK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburu eta jai egunetan egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHIILTAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:30 (gaztelaniaz)
11:30 San Isidron (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Santa Marinako eliza
Jai egun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

ARTISAU ETA ARTISTEN AZOKA
Hainbat elkarte Gabonetako azoka antolatzen dabil-tza. Deialdi zabala egin diete Arrasateko artisauek eta artistei. Jo AEDra hilaren 28a baino lehen, edo deitu 943771228 telefonora.

REIKI IKASTAROA
Yoga Elkarteak Reiki ikastaroa antolatu du azaroaren 24 eta 25ean. 943793576 telefonora deitu.

KONTSUMO BERBALDIK
Eroskik bi berbaldi antolatu ditu 21 eta 22rako Monterronen, 16:30ean. Biak, Gabonekin lotutako berbaldiak izango dira.

BUZKANTZA BAZKARIA
Ardi eta buzkantza bazkaria egingo dute Alkartetxean abenduaren 1ean. Deitu 943712788 telefonora edo pasa zaitez Alkartetxetik azaroaren 28a baino lehen.

BEGIRALEENDAKO DEIALDIA
Txikilandian begirale izateko, hilaren 30a baino lehen eman izena Txatxili-purdin. Egun bera Santa Marinako edo Erdialdeko ludoteken bazkide egiteko.

MUSIKARIEN KALEJIRA
Santa Zezilia dela eta, 21ean tronpetalari eta txistulariek kalejira dute 19:00etan.

AEDrenAGENDA

BERTSOLARI TXAPELKETARA
Abenduaren 16an Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera joateko autobusa eta bazkaria antolatu dituzte. Garraioaz eta janaz gain, sarrera barne egongo da 7.000 pezetan. Bertsozaleko kide izanez gero, 6.000 pezetan eta 16 urte edo gazteagoek, 4.000 pezetan. Izena eman lehenbailehen.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazuri, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, Ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Eguneko Ospitalea zabaldu dute Uribe auzoan

Eguneko Ospitalea zabaldu dute Uribe auzoan, Santa Agedan sarzteko besteko larritasun barik anbulatorioko tratamendua baino gehiago behar dutenendako. Eguerdira arte egongo da zabalik eta sendagile bat, hiru psikologo, eta gizarte laguntzaile eta monitore banak lan egingo dute.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Subalinddara”

1. Sugandila.
 2. Geldigaitza, ipurtarina, geldi egon ezin dena. Umeen inguruan, batik bat.
- Geldik egon ari, subalinddarioi.



ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Ruper Ordorikak disko berria aurkeztu du

Kalean da Ruper Ordorikaren disko berria. Hurrengo goizean izena jarri dio onatiarrak azken lanari, eta datorren martitzenean, hilaren 20an, Arrasate Irratian disko horretako kantuak izango dira entzungai. Gainera, Ruper bera ere irratian izango da.

Goizeko 10etan hasiko da elkarrizketa hori, esan bezala datorren martitzenean.

Bestalde, merkatu txikiaren inguruko saioa eskaintzen du martitzenetan herriko irratiak. Edozein ohar jarri gura izanez gero, Arrasate Irratian duzue horretarako aukera. Hori egiteko, honako telefono honetara deitu beharra dago: 943- 71 17 31.

Roman Balanzategi asteko errepassoan

Astean eskaintako elkarrizketa batzuk berriro izango dira entzungai zapatu eta domekan.

Oraingo asteburuan, Roman Balanzategiri egindakoa ipiniko dugu berriro ere, besteak beste. Jose Maria Arizmendiarrrietaren medikua izan zen Roman Balanzategi, eta azaroaren 29an Arizmendiarrrieta hil zela 25 urte beteko direnez, elkarrizketa egin diogu Romani. Zirt-Zart atalean, berriz, erdialdeko peatonalizazioa izango da eztabaidagai. Ander Elortondok eta Axen Azkaratek emango dute iritzia peatonalizazioaren gainean.

HAUGIROA!

MINIMOA Eguena, 8	1°C
MAXIMOA Zapatua, 10	15°C
ASTEKO EURIA (l/m²)	143 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 7	15°C	7°C	- l/m²
Eguena, 8	15°C	8°C	40,1 l/m²
Egubakoitza, 9	5°C	2°C	30,2 l/m²
Zapatua, 10	8°C	1°C	- l/m²
Domeka, 11	12°C	2°C	1,9 l/m²
Astelehena, 12	11°C	3°C	15,1 l/m²
Martitzena, 13	12°C	7°C	56,4 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena

ASTELEHENA
21:00 Maiuskulaz idatzitako Rock-a

MARTIZENA
21:00 Hi bizi hadi

EGUAZTENA
21:00 Hitz eta pitz

EGUENA
21:00 Gailurretik

EGUBAKOITZA
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak

ZAPATUA
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)
24:00 MIR (errep.)

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Mikelenea (errep.)

ASTEABIHITZETAN

Istripu larria Zubillagan

Martitzenean, hainbat istripu izan ziren ibarreko errepideetan, baina larriena Zubillagan gertatu zen. Arratsalde aldera, furgoneta batek eta kamioi batek elkar jo zuten Oñatirako bidean, eta istripuaren ondorioz Aretxabaletako gazte bat hil eta Arrasatear bat zauritu zen.

Hildakoa 35 urteko JM.O.A aretxabaletarra da, eta zauritua 34 urteko JL.H.C arrasatearra. Biak ere kamioiaren kontra jo zuen furgonetan zihoazen, eta eurek jaso zuten golpe handiena.

Bidezko merkataritza erakusketa


Joan den zapatuan, bidezko merkataritza erakusketa egin zen Arrasateko Eroski hipermerkatuan, eta helburua bidezko merkataritzaren zergatiak eta funtzionamendua jakinaraztea zen.

Horretarako, bidezko merkataritzako produktu dastatzea egin zuten. Kafea, azukrea, txokolata... denetarik probatu zuten hara zapatuan hurbildu zirenek. Harreman taldeak hirugarren munduko langileen egoera txarra nabarmendu gura izan zuen, eta bidezko merkataritzari esker hori guztia aldarrikatu.

Ezinduendako aparkalekuak

Arrasateko Udaltzaingoak ezinduendako aparkalekuen gainean ikerketa aurkeztu du, eta ikerketa horretan Arrasaten ezinduei bideratu behar zaizkien aparkalekuen berri ematen da.

Ikerketaren arabera, auzo guztietan aparkaleku gehiago jarri beharko lirakeke. Horrekin batera, aparkaleku horiek ezinduei bideratzeak ekarriko lituzkeen ondorioak ere azaltzen dira. Zerbitzu eta Mantentze Lanetako batzordeak adierazi du ezinduek egingo dituzten eskaeren arabera bideratuko dituztela aparkalekuak.



Elkarriren hitzaldia Monterronen

Elkarriren eskutik, Bake Konferentziaren inguruko hitzaldia izan zen Monterronen martitzen arratsaldean. Bake Konferentzia bideratzeko metodologia izan zen eztabaidagai. Elkarriko koordinatzaile Gorka Espinauk azpimarratu zuen gizartearen laguntza beharrezkoa izango dela.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Elur usaina bazterretan

Joan den astean, hotz handia egin zuen, eta azkenean egubakoitzean elurra jaitsi zen mendietatik herriraino. Hala ere, "eguraldiko gizonak" iragarri baino lehenago, uste baino lehenago, eguneko hizketaldi guztietako protagonista bilakatu zen elur preziatua urtu eta ur putzu bihurtu zen. Hain barneratuta daukagu elurraren irudia,

berehala hotzarekin, negu ilunarekin eta, zergatik ez, etxeko zapatilekin lotzen dugula. Horregatik, bat-batean, berotik hotzera igarota, askok eta askok estufa, bota eta berokiak eroatera jo zuten neguari aurre egiteko asmoz.

Bestalde, beste batzuek, eguraldiari bizkarra emanez edo kasu gutxiago eginez, dagoeneko saltoki handietan

Gabonetako sendi-topaketa-rako erosketak erraldoiak eginak dituzte. Telebistan ere ziurrenik Gabonetako produktuen bonbardaketa egiten hasiko ziren -beste bonbardaketa bat, modan jarriko ote dira?-. Elurra gabonekin lotzea hedabideen eraginez gertatzen da.

Gabonez ari garenez, herriko zenbait elkarte azoka bat prestatzen dabiltzala gogoratu dut. Arrasateko artisau eta artisten lanak batu nahi ditu azoka horrek.

ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

DENBORA ALDAKETA BORTITZAREN ONDORIOZ, ELURRA ARRASATEN

Azken urteetan ez dugu elurra Arrasateko kaleetan sarri ikusi, baina joan den astean, eguraldiak aukera hori eskaini zigun. Egubakoitzean, kaleak zuri-zuri geratu ziren, eta herriko gazteenek, eta ez hain gazteek, ez ziren oso urrun joan behar izan elurrarekin jolasteko. Hala ere, gozamenak ez zuen

askorik iraun, eta kaleak berehala bueltatu dira betiko egoerara. Hala ere, elurrarekin gozatu gura izan duenak sekulako aukera izan du aste osoan inguruko mendietan. Eta badirudi ondorengo egunotan elurrak berriro ere bisita egingo digula. Ea elurrak kaleak zuritzen dituen osteran. /XABIER URZELAI

M

MEMESA

**Industria
hornidurak**

Tel. 943 71 24 25

**UGARAN
jatetxea**


Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

Larrinagan

GIDARI ESKOLA

Garibai, 5
Tel.: 943 792296
ARRASATE

Basabe ind. 50-7
Tel.: 943 796450
ARETXABALETA



EGUZKIGRAF

inprimategia

ARETXABALETA

Industrialdea F-0-4
Tfnos: 791844
Faxa: 792941

GAIA/ Antikuario, brokante eta bildumen lehenengo azoka egingo da egubakoitzetik domekara Arrasaten

Antzinatasunari leihoa irekiko zaio asteburuan Uarkape pilotalekuan

MAIDER OSA

Antzinatasunari leihoa irekitzeko aukera paregabea izango da asteburuan Arrasaten. Antikuario, brokante eta bildumen azoka egingo da Uarkape udal pilotalekuan lehenengo aldiz, ostiraletik igandera bitartean. Hogeita bi postuk osatuko dute erakusketa.


Euskadiko Brokante Kofradiakoei duela hiru urte bururatu zitzairen Arrasaten azoka egitea. Dena dela, oztopoen mugetan itota gelditu zen kofradiako kideen asmoa. Azoka egiteko toki egoki baten faltan (Uarkape pilotalekua ere ez zegoen prest) bertan behera utzi behar izan zuten hasierako ilusioa. Antolatzaile lanetan aritu den Amaia Zabalak esan digunez, ordea, oraingo honetan "bata bestearen atzetik lotuta bezala etorri dira gauzak, eta udaletik ere laguntza handia jaso dugu. Bestalde, Arrasaten behin ere ez da horrelakorik egin, eta interesgarria izan daiteke".

Arrasateko feria hogeita bi postuk osatuko dute. Gipuzkoatik zazpi brokante etorriko dira, Bizkaitik bi, Nafarroatik hiru, Bartzelonatik hiru, Madrildik hiru, Sevillatik hiru eta ipar Euskal Herriatik beste bat. Amaia Zabala brokanteak adierazi bezala, "horrelako azoketara, oro har, inguruko merkatariek baino ez dira etortzen; oso zaila da, adibidez, Bartzelonatik norbait etortzea. Hori dela eta, Arrasateko azoka ikusgarria izango da".

LEHENENGO ALDIZ

Amaia Zabala buru-belarri aritu da Arrasateko azoka antolatzen lanetan. Bera da antolatzaile nagusia. Amaiaren eguneroko lanak ere lotura estua du antzinako eta brokanteko gauzekin. Altzariak zaharberritzeko eta saltzeko denda bat du Irunen, "Bagage" izena duena, eta bildumak ere saltzen ditu denda horretan. Bestalde, Euskal Herriko Brokanteen Kofradiako partaide ere bada Amaia. Hogeita hamahiru partaide ditu kofradiak, eta ez du inolako politikarik; antzinako objektuekiko maitasuna eta zirrara da kofradiaren politika bakarra. Feriak izaten dituzte topaleku nagusia, elkartzeko ere ez baitute egoitza finkorik, brokanteek elkar ezagut daitezten ere balio dute antikuario, brokante eta bildumen azokek.

Arrasaten sekula ez da horrelako azokarik egin. Dena dela, Euskal Herriko beste hainbat herri ez zaizkie arrotz egiten brokantei: Donostian, esate baterako, bederatzita azoka egin dituzte dagoeneko; Zarautzen zortzi, eta Iruñean eta Tolosan lau. Urtean zazpi bat feria egiten dituzte



Hogeita bi postu egongo dira ikusgai Arrasateko Uarkape Udal Pilotalekuan.

"Brokanteen azokek merkataritza helburuak xede kulturalekin lotzen dituzte"

Euskal Herriko brokanteek. Badituzte toki finkoak, urtetik urtera errepikatzen dituztenak: Donostia, Hondarribia, Iruñea, Zarautz, ... Amaia Zabalak aitortu digunez, "Arrasatekoak arrakasta izanez gero, baliteke azoka hau brokanteen urteroko hitzor-

Brokanteek feriak izaten dituzte topaleku nagusia. Hantxe elkartzten dira

du bihurtzea ere". Arrasaten erakusgai izango diren objektuen salneurriaz galdetzerakoan, zera erantzun digu Amaia Zabalak: "Denetarikoa erakutsiko dira. Dena dela, gauzek beti dagokien balioa izaten dute. Hau da, munduan ezaugarri konkretu batzuek

Hogeita hamahiru partaide ditu Euskal Herriko Brokanteen Kofradiak

dituen objektu bakarra badago, garestia izango da".

HELBURU KULTURALAK

Brokanteen azokek merkataritza helburuak xede kulturalekin uztartzen dituzte. Amaia Zabalak esan bezala, "horrelako azoke-

tan gure lana ezagutzera emateaz gain saltzea ere gustatzen zaigu. Dena dela, helburua harantzago doa. Errenterian egin genuen azoka baten ondorioz, adibidez, bertako udalari 40. hamarkadan herriko lantoki batean egiten zuten publizitatea aztertzea bururatu zitzaion. Bestalde, Zarauzko argazki museoko jabea gure azoketara etortzen da argazki zaharrak aurkitzera. Arrasaten ere polita litzateke horrelako zerbait gertatzea, oso herri industrialia baita. Esan daiteke herrietako memoria bilatu eta osatzeko modua ere eskaintzen dugula".

Arrasateko azokan altzariak izango dira nagusi. Estilo eta mota guztietakoak ikusi ahal izango dira, gainera: baserri girokoak, Euskal Herrikoak, ingelesak, frantsesak, Indonesiakoak. Horretaz gain, bitxiak, margolanak, fosilak, zilarrezko objektuak, agiri zaharrak, diskoak, txanponak... ere erakutsiko dituzte merkatariek. Jabier Aguado eta Mari Jose Lizarralde senar-emazteak, adibidez, fosilak eta mineralak erakustera etorriko dira Urretxutik. Duela 500 milioi urtetik 20 milioi urtera bitarteko antzinatasuna dute fosil eta mineral horiek. Jabier Aguado umetan hasi zen fosilak batzen, aitzak ere zaletasun hori zuen-eta. Mari Jose Lizarralde, berriz, senarra ezagutzerakoan zaletu zen, duela 17 urte inguru. Fosilak bilatzera Teruelera joatea dute gustuko. Euskal Herrian, berriz, Altsasun bilatu dituzte duela 20 milioi urteko fosil ugari, eta Gipuzkoan ezer gutxi dagoela ere jakinarazi digute. Fosilei eta mineralari buruzko erakusketa dezentetan hartzen dute parte. Besteak beste, Munichen, Frantzian, Bartzelonan... egon izan dira. Fosilen trukeak ere egin izan dituzte, eta erosi ere bai, zenbaitetan. 100 pezetatik milioi erdiko balioa duten fosil eta mineralak aurki daitezke merkaturatzen. Mari Josek, ordea, fosil konkretu bat aurkitzearekin egiten du amets: "krokodiloen fosil bat aurkitu nahi nuke. Orain arte bi bakarrik aurkitu dira munduan, eta biak Washingtongo museoan daude". Zenbat mineral eta fosil dituzten galdetuta, Mari Jose ez da erantzuteko gauza. Ikaragarri omen dituzte, guztiak ere biltoki batean gordeta. Urretxutik senar-emazteek ofizio bihurtu dute, gainera, lehenago 'zale' tasuna baino ez zena.

Fosilak eta mineralak ikustez gain antzinatasunari leihoa ireki nahi dionak, Arrasateko Uarkape udal pilotalekuan izango du aukera, ostiraletik igandera bitartean. Azoka goizeko 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik.

Nortasunik gabeko etxeak jantzi

"Gaur egun etxeek klonen itxura dute. Pertsona bakoitzaren nortasuna islatu behar luke etxe bakoitzak. Jeneralean ez da horretarako aukerarik izaten, baina brokanteen feriek ateak irekitzen dituzte horretarako, oso gauza kuriosoak eta ezberdinak jar baititzaizkete eskura" (Amaia Zabala).

Beraz, asteburuan Uarkape frontoian egingo den Brokante azokan etxea hornitzeko altzari eta elementu berezi ugari aurkitzeko parada izango dugu. Antzinako altzari ikusgarrietaz gain, bilduma politik egin edo etxea jantzeko bitxiak, margolanak, fosilak, zilarrezko objektuak, diskoak, txanponak eta beste batzuk.

Hogei ordenagailu eta irakasle bi herritarren erabilerarako


UBANE MADERA

Uarkapen bi gune egokituko dituzte informatika gelak ipintzeko. Hogei ordenagailu eta irakasle bi izango dira herritarren erabilerarako. Internet erabili ahal izango da, eta informatika eskolak hartu.

Eusko Jaurlaritzaren *Konekta Zaitetz* programarekin bat eginenez, Udalak informatika gela bi zabalduko ditu Uarkape pilotalekuan. Gela horietan 20 ordenagailu eta irakasle bana izango dira. Gela bateko ordenagailuek internet izango dute, eta beste gela hezkuntzarako izango da.

INTERNET ETA IKASTAROK

Horrela, herritarrek Uarkapeko ordenagailuak erabili ahal izango dituzte interneten gauzak bilatzeko edo mezuak bidali eta jasotzeko, baita informatikaren gaineko eskolak jasotzeko ere.



UBANE

Monterongo gelaren antzekoak lirakeke.

Internet gela 16 urtetik gorako edozeinek erabili ahal izango du. Eta formazio gela internet erabiltzeko zailtasun handiena dutenendako izango da: epe luze-rako langabeak, etxekoandreak, hirugarren adineko pertsonak...

Helburua da internet ezagunago izatea herritarren artean.

Abenduaren erdialdera zabaldu gura dituzte informatika gelak, Santamas inguruan. Eta asmoa da astelehenetik egubakoitzera zabalik izatea, goizez eta arratsaldez.

BALDINTZAK BETE

Udalak Uarkape aukeratu du gelak ipintzeko, pilotalekuak Eusko Jaurlaritzak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituelako: erdialdean dago, irisgarritasun arauak betetzen ditu... Pilotalekuaren lehen eta bigarren solairuetako eskaile-aren arteko korridoreetan egingo dituzte gelak; behekoan internet gela kokatuko da eta goikoan ikasgela. LKSk idatziko du proiektua.

Edozelan ere, informatika gelak zabaltzeko bi irakasle behar dira. Hortaz, interesa duenak curriculumak bidali behar du Udaletxera.

Unibertsitate Legearen kontra greba orokorra deitu dute

UBANE MADERA

Espainiako gobernuak eraldatutako Unibertsitate Legearen kontrako protesta ekimenak izan dira oraingo astean Mondragoen. Azaroaren amaieran, berriz, irakaskuntzan greba orokorra deitu du Ikasle Abertzaleak taldeak.

Oraingo astean, eta Euskal Herri osorako egindako deialdiekin bat eginez, protesta ekimenak egin dituzte ibarreko zenbait ikastetxetan, Espainiako gobernuak erabaki duen Unibertsitate Lege

berriaren kontra. Ikasle Abertzaleak taldeak kanpaina antolatu du lege horren kontra, eta *Unibertsitate Legari Intsumisioa!* izenburua du ekimenak. Horrekin salatu gura dute "lege hori ez dagoela Euskal Herriarendako eginda, eta hortaz, ez dutela onartuko". Gaineratu dute "lege berria ez dela zaharra baino hobea, ez duelako euskal hezkuntza sistema onartzen". Kanpaina horren barruan, datorren azaroaren 28an, eguaztenean, Ikasle Abertzaleak taldeak greba orokorra deitu du ibarreko ikastetxe guztietan.

HEZKUNTZA EUSKALDUNTZEKO

Bestalde, eta IArekin segituz, Euskal Herriko hezkuntza euskalduntzeko jardunaldiak egin zituzten eguenean. Besteak beste, zenbait gazte Udaleko aretoa nagusian elkartu ziren, eta hezkuntza euskalduntzeko proposamenak egin zituzten. Oro har, Euskal Herriaren izaera onartuko duen hezkuntza sistema eta egutegia eskatzen dituzte, ikas materiala hemen sortutakoa eta euskarazkoa duena; ikasgaietan zenbait aldaketa egin beharra ere ikusten dute, eta ikastetxeetako barne harremanak euskaraz beharko luketela.

LABURRAK

Bizikletak uzteko lekuak ipiniko ditu Udalak auzoetan eta erdigunean lehenengo aldiz

Mondragoen laster ikusiko ditugu bizikletak kalean aparkatuta. Izan ere, eta gaztetxokoek eskaerari kasu eginez, bizikletak uzteko lau aparkaleku ipiniko dituzte herrian: Uribarrin, San Andresen, Musakolan eta erdigunean ipiniko dituzte. Horrela, kalean bizikletaz ibiltzea erraztuko dute.

Aparkaleku bakoitzak bederatzi bizikleta uzteko lekua izango du. Udalak 150.000 pezeta inguru (900 euro pasatxo) erabili-ko ditu aparkalekuok erosteko.

Herriko landaretzaren gainean 'Habitat Naturala' izeneko liburua aterako dute

Oraingo asteko Gobernu batzordeak erabaki du herriko landaretzaren gainean liburu bat ateratzea. Duela gutxi herriko landaretza aztertu dute, eta, hain justu, azterketaren emaitzak publikatuko dituzte *Habitat Naturala* izeneko liburuan. Besteak beste, azken urteotan landaretza mota batzuk desagertu egin direla-eta, horien berri emango da liburuan. Bostehun liburuxka kaleratuko ditu, eta ia milioi bateko kostua izango du.

Hiesaren Mundu Eguna dela-eta, ekimenak egingo dituzte Mondragoen

Hiesaren Mundu Eguna izango da datorren abenduaren leian, eta horrekin lotuta, zenbait ekimen egingo dituzte Mondragoen. Azaroaren 30ean, egubakoitza, hiesari aurre egiteko informazioa emango dute Udaletxeko areto nagusian, 17:00etan. Zapatuan, berriz, informazioa emateko mahaiak ipiniko dituzte eta 17:00etan, Hamlet taldearen antzerkia izango da Seber Altuben.



Behobia-Donostian presoek alde

Behobia-Donostia lasterketan, 25 lagunek Arrasateko 15 presoek izenean egin zuten korrika, presoek argazkiak aldean zizutela. Horrela, bost eskaera egin zituzten: euskal presoak Euskal Herriratzea, zigorraren 3/4ak beteta dutenak askatzea, senide eta lagunei elkartasuna adieraztea, azken atxiloketak salatzea eta gizarteari konpromisoa gorde behar dela gogoraraztea.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

GAIA/ Zirkulazioa bideratzeko neurriak

Zirkulazioarekin lotutako neurriak hartzeko eskaera

UBANE MADERA


Herriko zenbait lekutan zirkulazioa bideratzeko neurriak hartzeko eskatu diote Udalari. Uribe auzotik eta Obenerrekatik heldu dira eskaerak. Semaforoak, zebrabideak eta aparkatzeko debekua eskatzen dituzte.

Uribe auzoan sortzen diren auto ilarek oinezkoendako duten arriskua ikusita, Fagor Ederlanek idatzia bidali dio Udalari, hango zirkulazioa bideratzeko neurriak eskatzeko. Semaforoak ipintzea eta zebrabideak jartzea eskatu diote Udalari, hain justu, Uribe auzoan Fagorrek duen lantegiaren parean. Oraingo asteko Gobernu batzordeak aztertu du eskaria, baina errepide hori Foru Aldundiarena dela-eta, erabakia Diputazioak berak hartu behar duela gogorarazi du Udalak.

Baina Fagor Ederlan ez da bakarrik arazo horrekin kezkatuta dagoena. Gesalibarko auzoalkatetza eta auzoan dauden ospitaleak ere kezkatuta daude auzo horretatik pasatzerakoan automobilek daramaten abiadurarekin. Urrian kezka azaldu zioten Diputazioari eta eskatu zioten neurriren bat har dezala automobilen abiada murrizteko.

OBENERREKA

Bestalde, Obenerreka auzotik ere jaso du eskaera, La Merced ikas-



Fagorretik langileak irteten direnean auto ilarak sortzen dira.

tetxera bidean dagoen bihurgunean jendeak automobilak aparkatzen dituelako. Izan ere, horren ondorioz, oinezkoek errepidera irten beharra izaten dute handik gora egiteko.

Horren aurrean, Udalak erabaki du epe motzean kendu egingo direla bihurgune horretan dauden aparkalekuak, eta hortik aurrera debekatuta egongo da aparkatzea.

LABURRAK

Durango-Kanpanzar errepideak ingurumenari egingo dion kaltea aztergai

Durango-Kanpanzar errepidearekin lotuta aurrerapausoak ematen ari dira. Eusko Jaurlaritzak Arrasateko Udalari eskatu du errepideak ingurumenari egin diezaiokkeen kaltea aztertzea eta horrekin lotutako gomendioak egitea. Eta Udaleko Hirigintza batzordeak, horren harira, besteak beste eskatu dio beharrezko ikusten duela lan horietan sortuko diren hondakindegia zaitza eta horietako batzuk, gerora, ekonomia jardueretarako lur zoru publiko bezala erabiltzeko aukera ematea. Eta Kanpanzar ko tunelak egitea ezinbestekoa dela uste du Udalak.

Herri autobusa hilean behin doan izatea proposatu du Leintz Garraioak enpresak

Hileko lehenengo martitzenean (betiere laneguna izanez gero) herri autobusa doan izatea proposatu dio Leintz Garraioak enpresak Udalari. Joan den irailaren 21ean, Automobil Gabeko Mundu Egunean, herri autobusak izandako arrakasta eta gero proposatu du Leintz enpresak proposamena egitea.

Angel Marco Leintz Garraioak enpresaren arduradunarekin esanetan, arrazoi bi daude proposamen hau egiteko: herri autobusa doan ipiniz gero, "garraio publikoa indartuko litzateke batetik, eta bestetik, hirigunean automobil gutxiago erabiltzea lagunduko luke". Ekimena Udaleko Ingurumen batzordearekin eta Leintz Garraioak enpresaren artean ordainduko luke. Hain justu, oraingo astean landu behar zuten gaia, baina datorren asteko batzarrerako utzi dute.

Kooperatibismoaren Mundu Eguna eguaztenean. Arizmendiarieta gogoan

Orain dela 25 urteko azaroaren 29an hil zen Arrasateko Mugimendu Kooperatibistaren sortzaile nagusia: On Jose Maria Arizmendiarieta. Hori dela eta, datorren eguaztenean hasita, kooperatibismoa protagonista izango da bai ibarreen bai eta ibarretik kanpo ere. Hain justu, eguaztenean Kooperatibismoaren Mundu Eguna da, eta horren harira, Arizmendiarieta eta hark egindako ekarpena gogora ekarriko du Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak. Kooperatiben abantailak hirugarren milurtekoan izenburu ipini diote. 17:00etan hasita, 19:00ak arteko jardunaldia egingo dute. Tartean, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak hasiera ofiziala emango dio eta Alfonso Gorroñogoitiak, Arrasateko kooperatiben sortzaileetako batek, Arizmendiarietaren gainean berba egingo du. Ekitaldia Donostiako Parke Teknologikoan izango da.

Ibarrean hamar lagunetik lauk dute behin-behineko lan-kontratua

UBANE MADERA

LAB sindikatuak emandako datuen arabera, 10 lagunetik 4k behin-behineko lan-kontratua dute bilaran. Era berean, eta nahiz eta kooperatibak indar handia izan eta mota horretako industria gehiago

izan, kooperatibista kopurua gero eta txikiagoa dela adierazi zuten. Bestalde, langabeziak emakumeengan bereziki duela eragina salatu zuten. INEM, Lanbide Net edo Gobernuak emandako datuetatik ondorioztatzen dira emaitzak. Egoera horren aurrean, LABek mobi-

lizazioak iragarri ditu. Gaur, lanordezkaritzetan elkartuko da. Aurrera begira, lanaren gaineko eta langileen eskubideen gaineko informazioa zabalduko dutela iragarri dute. Eta emakumeen berdintasuna lortzeko plangintzak ezarriko dituztela.

Ehun alegazio baino gehiago Egitamu Orokorriari

UBANE MADERA

Bukatu da Egitamu Orokorriari alegazioak aurkezteko epea, eta guztira 168 alegazio inguru jaso ditu Udalak. Orain, alegazioak aztertu eta onartu edo ez erabaki beharko dute. Gero, datorren urteko aurreneko hilabeteetan

osoko bilkurak behin-behinean onarpena emango dio; eta Egitamu Orokorrean aldaketa asko egingo gero, berrituko gero jendaurrean ipiniko dute. Udaleko Hirigintza batzordeak adierazi duenez, alegazio dezente dira, baina horietan esan gura du jendeak baduela iradialda eta parte hartzeko gogoan.



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneriaUribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATEOSORIK
PUBIgnazio Zuluaga, 4
ARRASATEHIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99



ZEBRABIDEA MARGOTU BERRI

Oinezkoak hizpide dira egunotan, eta hori dela eta eztabaidaren bat edo beste izan da Arrasaten. Ez dakigu peatonalizazioaren kontua zelan amaituko den, baina beste gauza batzuk ere zaindu beharko ditugu. Hainbat zebra-bideek bazeukaten bai berriro margotzeko beharra!



JAUNARTZEA KONTATZERA

Beñat, Gorka, Jon eta Maddalen Arrasate Irratian izan ziren orain dela aste batzuk euren jaunartze-aren inguruko kontuez berba egiten. Elizkizuna

San Juan Bautista elizan izan zen, eta guztira 38 neska-mutikok ospatu zuten jaunartzea. Zorionak guztioi!




25 URTE, ZORIONAK!

Jesus Beitia eta Lourdes Ibabe ezkondu zirela 25 urte pasatu dira dagoeneko, eta hōri ospatzeko afari bikaina egin zuten urriaren 31n Zumarragako Etxeberri jatetxean. San Isidroko elizan ezkondu ziren, eta oraingo egunetan kanpoan izan dira 25 urte horiek ospatzen, eta merezita, gainera. Espero dezagun datozen 25 urteak aurrekoak bezain zoriontsuak izatea. Zorionak, familiakoen partetik!



AMAIA BERRITZEN

Arrasateko antzokiak beste aurpegi bat erakutsiko digu aurki, eta langileak gogor ari dira berritze lanak egiten. Lanak amaitzen direnean, berriro ere Arrasateko kultura eskaintza oso-osorik gozatu ahal izango dugu. Ea lanak ondo egiten dituzten!



AITAITA JULIOREN GAZTAINAK

Nork ez ditu inoiz jan aitaita Juliok erretako gaztaina gozoak? Gaztetxo hauek

aukera paregabe hori bikain aprobetxatu zuten, eta gu, beste behin, gogoarekin geratu behar.

Arizmendiko San Viator Txikiko Haur Hezkuntzako andereñoen partetik, mila esker, Julio!

Javier Mentxaka eta Zuhaitz Ezpeleta arrasatear azkarrenak Behobian

XABIER URZELAI

Aurten ere, hainbat arazo izan ditu Behobia-Donostia antolatu duen enpresak, eta lasterkariak eginiko denborak ez dira oso fidagarriak. Javier Mentxaka eta Zuhaitz Ezpeleta izan dira arrasatear azkarrenak, ordu eta zortzi minutu behar izan dute ibilbidea egiteko.

Aurtengo edizioa arrakastatsua izan bada ere, Behobia-Donostia maratoi erdia antolatu duen kirol enpresak arazoak izan ditu denborak behar den bezala hartzeko. Bazirudien txip miresgarri horrekin ez zela inongo arazorik izango, baina oraingo egunotan, hainbat korrikalarik protesta egin dute, denbora ofizialak gaizki daudela salatu dute.

Arrasateko kirol dendetan 200 lasterkari eman zuten izena, eta aurtengo azkarrenak Zuhaitz Ezpeleta eta Javier Mentxaka izan dira. Zuhaitzek 1:09:03 behar izan zuen hogeit hamar kilometro eta bostehun metroak egiteko, eta sailkapen nagusian 66. postuan azaltzen da. Aurreko urtean ordu bat eta hamabi minutu behar izan zituen, hortaz, marka hobetu egin du.

Javier Mentxakak 1:09:13 egin



JULEN IRIONDO

Domekan, beste behin, giro bikaina izan zen Donostiako Boulebarrean.

zuen, aurreko urtean egindako denbora baino bi minutu gutxiago, hortaz, beteranoa oraindik sasoi onean dago. Sailkapen nagusian 61. postuan azaltzen bada ere, bere kategorian hamaikagarrena izan zen.

Emakumetan, Francisca Alonsok 1:32:54 egin zuen, eta hura izan zen Arrasateko emakume azkarrena. Franciscak joan den urteko Diana Idigorasen mar-

ka hobetu du.

JOAN DEN URTEAN BAINO GUTXIAGO

Aurten, joan den urtean baino arrasatear gutxiago joan dira Behobia eta Donostia banatzen dituzten kilometroak korritzera. Iaz, 106 korrikalarik amaitu zuten proba, eta aurten, 84 arrasatear iritsi dira helmugara.

Ea datorren urtean animatzen diren aurten izan ez direnak.

Ander Corcuera Xerezeko korritu beharreko proba atzeratu egin da

XABIER URZELAI

Estorilen egindako lan bikainaren ostean, pilotu arrasatearra Xerezeko proba atzeratu egin da. Argi dago pilotu arrasatearrak pixkanaka-pixkanaka Klio Txapelketari neurria hartzen diharduela.

go Jarama zirkuituan jokatu dira hurrengo asteburuan.

Aurreko lasterketa Estorilen izan zen, eta hamabigarren geratu zen Ander. Argi dago pilotu arrasatearrak pixkanaka-pixkanaka Klio Txapelketari neurria hartzen diharduela.

ESPERIENTZIA HARTZEA HELBURU

Ander Corcuera ezin izango du Klio Kopan lasterketa askorik jokatu, izan ere, denboraldia amaitzeko lasterketa gutxi geratu dira.

Renault Formulan jokatzeko oso zaila izango zela konturatu

zenez, beste aukera batzuk aztertzen hasi zen Ander. Klio Kopa aukera polita zela ikusita, bertan sartzeko aukera izan zuen, eta horri ekin zion buru-belarri. Lehenengo probetan emaitza onak lortu ditu, eta orain jokatzeko ari den lasterketek datorren urterako entrenamendu moduan balio izango diote.

Pilotu arrasatearrak ez du entrenatzeko aukerarik izaten, hortaz, lasterketa bakoitza entrenamendu bat izaten da. Datorren astean, Jaraman izango da, eta Jaraman bertan lortutako emaitza hobetzea izango du helburu.

ESKUBALOIA

Arrasateko seniorreko bi taldeek derbya jokatu dute Iturripen zapatu eguerdian

Bihar, partidu ikusgarria jokatu dute seniorreko bi taldeek; izan ere, Iturripen derbya izango da ikusgai eguerdiko hamabietatik aurrera. Jesus Mari Herreroren mutilak Bernardo Balerdik zuzentzen duen taldearen kontra arituko dira, eta ikusi egin beharko da zein talde nagusitzen den.

Hasiera baten, Bernardoren mutilak dira faboritoak. Azken baten, talde beteranoagoa da. Hala ere, ikusi egin beharko da.

ERRUGBIA

Arrasateko errugbi taldeak bihar jokatu dute Garagartzako zelaian liderraren kontra

Arrasateko errugbi taldeak Getxoren kontra neurtu beharko dituzte indarrak bihar, zapatua, arratsaldeko lauretan. Arrasateko mutilak liderra izango dute aurrez aurre, hortaz, partidu gaitza izango da.

Joan den astean, etxeko jokalariek Gasteizko Gaztedi taldearen kontra jokatu behar zuten, baina elurra zela-eta, ezinezkoa izan zen partidua jokatzeko. Ea biharkoa arazo barik jokatzeko dute

FUTBOLA

Mondra taldeak bolada onari agur esan dio Zumaiakoren kontra 3 eta 1 galdu eta gero

Arrasateko futbol taldeak emaitza onak eskuratu ditu azken asteburuan, baina bolada on hori joan den asteburuan amaitu zuen Zumaiakok askoz meritu gehiago egin zituen partidua aurrera ateratzeko, eta azkenean 3 eta 1 irabazi zuen kostaldeko taldearen aurka.

Zumaiarrek hasieratik erakutsi zuten nagusitasuna eta lehenengo zatia 2 eta 0 amaitu zen. Bigarren zatian gauzak ez ziren askorik aldatu, arrasatearrek penaltiz egin zuten gol bakarra.

Oraingo asteburuan, Mondrak berriro ere kanpoan jokatu beharko du, Elgoibarren kontra. Ea emaitza hobea lortzeko dute

KIROLAGENDA

FUTBOLA

Arrasate - Antiguoko
Ohorezko kadete. Zapatua, 10:15. Atxabalpen.
Arrasate - Aurrera Ondarroa
Bigarren jubenilak. Zapatua, 15:30. Atxabalpen.
Arrasate - Real Sociedad
Infantilak. Domeka, 10:30. Atxabalpen.
Arrasate - Amaika Bat
Neskak. Domeka, 12:30. Atxabalpen.

ESKUBALOIA

Arrasate - Leizaran
Jubenilak. Zapatua, 10:00. Iturripen.
Arrasate Almen - Arrasate
Seniorrak. Zapatua, 12:00. Iturripen.

SASKIBALOIA

Siglo XXI - Kenci Arrasate
Lehen maila. Zapatua, 19:30. Gasteizen.
Kenci Arrasate - Iraurgi Fideo Mileto
Junior. Zapatua, 16:00. Musakolan.
Kenci Arrasate - Easo B
Kadete. Zapatua, 12:00. Musakolan.

ERRUGBIA

Arrasate - Getxo
Seniorrak. Zapatua, 16:00. Garagartzako

PILOTA

Herri Arteko Txapelketa
Gaur, egubakoitza 19:00tik - 21:00ra
Iturripen pilotalekuan:
Uribarren eta Agirre - Aretxabaleta
Osinaga eta Zuazubiskar - Eibar
Santamasetako Txapelketa
Osinaga - Errasti. Martitzena, 19:00. Uarkape.
Zugasti - Zuazubis. Martitzena, 19:30. Uarkape.

EMAITZAK

FUTBOLA
Zumaiako - Mondra. 3-1
Gazteak: Arrasate - Aldapetarrak. 6-2
SASKIBALOIA
UPV Araba - Kenci Arrasate. 103-94
ESKUBALOIA
Gazte mailan: Arrasate - Usurbil. 22-14
Seniorrak: Urola - Arrasate Almen. 22-21
Seniorrak: Arrasate - Urnieta. 15-27



- Zorrozketak
- Aiztogintza
- Oinetako eta aterkien konponketa

Rafa Sarrailagintza

Rafa Opariak

Tel. eta faxa: 943 79 76 03
Eroski merkatal zentrua 1 eta 3.
ARRASATE



Eta orain...
opariak zure eskura
gure denda berrian!!!

ELKARRIZKETA

ZUHAITZ EZPELETA/ATLETA

"Gauza bat da kirolaz gozatzea, eta beste bat sakrifizio bezala hartzea"

XABIER URZELAI

Zuhaitz Ezpeleta arrasatear azkarrena izan da Behobia-Donostian, eta Lora-mendi Kirolak dendak sari bat eman berri dio. 24 urteko bedoñar hau laugarren aldiz izan da maratoi erdian, eta urtero bere marka hobetu izan du.

Zer moduz ibili zinen domekan?

Nahiko ondo, Pasaia aldean momentu kritikoa izan nuen, baina aurrera egitea lortu nuen, eta azkenean ondo ailegatu nintzen helmugara.

Arrasateko Triatloi Taldeko kide zara. Aurten taldeki-deek ez dizute konpetentziarik egin.

Ez, asko ez dira etorri. Jon Aperribaik eta Iban Silvarrek ez dute Behobiara joateko aukerarik izan, eta pena izan da. Iaz, hirurok izan ginen, eta lasterketa osoa elkarrekin egin genuen. Hori izaten da politena, baina aurten ez da posible izan.

Javier Mentxaka zure atetik helmugaratu zen segundo gutxira, horrek ere badauka meritua, ala?

Badauka bai, eta ez txikia, gainera. Ez dakit zenbat urte izango dituen, baina adin horrekin sasoi horretan egotea meritua handikoa da. Betidanik ibili da hara eta hona lasterka, baina ez da bate-re erraza.

Triatloietan parte hartzen duzue, ez dut uste Behobia-ko askorik prestatu duzunik.

Egia esan, ez. Udan atseden hartu nuen, eta irailean betiko martxan hasi nintzen. Horrez gain, azken momentuan eman nuen izena, gehienbat azken hiru urteetan parte hartu dudalako, baina ez dut maratoi erdia bereziki prestatu.

Horrelako probetan parte hartzen duzuenok momentu honetan denboraldiko zein fasetan zaudete?

Duatloiak martxo aldera hasten dira, hortaz, komeni da pixkanaka-pixkanaka entrenatzen hastea. Hilabete hauetan ez dugu entrenamendu gogorrik egiten, urtarriletik aurrera hasten da benetako denboraldia.

Aurtengo denboraldia zer moduzkoa izan da?

Hasieran neuzkan helburuak, behintzat, bete ditut. Argi dago ez garela horretara dedikatzen, lasterketez gain, lana eta beste hainbat gauza dauzkagu, hortaz, ezin dugu gehiagorik eskatu. Egia da denboraldiko garai batzuetan oso kontzentratua egoten garela, eta horretan sartzen garela burubelarri. Batzuetan larregi egiten dugu, eta jakin egin behar da



XABIER URZELAI

"Aurtengo helburuak bete ditut. Euskadiko lehen hamarren artean egotea, alegia"

muga non dagoen.

Kontaiezaguz zuen entrenamenduak zelakoak diren.

Urtaro bakoitzak asko baldintzatzen du hori. Neguan agian gutxiago egiten dugu, eta udaberrian gehiago. Egunean bi kirol egitea da gomendagarriena, eta astea pasatzerakoan bederatzita entrenamendu ezberdin eginda izatea. Egun batzuetan hiru egin ditzakezu, edo bat ere ez. Bakoitzak jartzen du muga.

Ez didazu esango maila horri eustea lan erraza denik.

Ez, argi dago maila horretan egoteko gogotik izerditu behar dela. Txapelketa baten, lehenak sekulako maila dauka, baina hamargarren sailkatzen dena ere ederki entrenatzen da. Hala ere,

"Denboraldian garrantzi handia ematen diegu probei, askotan larregi"

argi esan behar da triatloi edo duatloiak egiteko ez dagoela zertan horrenbeste sakrifikatu.

Sari asko jaso dituzu orain arte?

Egia esan, ez. Bateren bat edo beste badaukat, baina normalean ni bigarren taldetxoan iristen naiz. Aurten, Euskadiko hamarren artean sailkatzea lortu dut, eta ez dago batere gaizki.

Kirola, zaletasuna ala zerbait gehiago?

Hasieran, zaletasuna baino ez zen, baina argi dago gaur egun hori baino zerbait gehiago dela. Denboraldia hasten denean garrantzi handia ematen diegu duatloi eta triatloiko probei. Askotan larregi, neskalagunari galdetu bestela.

EMAKUME TXOKOA

Literatura solasaldiak

Gaztelarazko taldea lehen saioa azaroaren 20ean, " Historia de una maestra " Josefina Aldecoa idazlearena.

Euskarazko taldeak, abenduaren 3an izango du hurrengo saioa, bertan Ramon Saizarbitoriaren " Bihotz bi " liburua landuko delarik.

Saioak Monterron Liburutegian izango dira, 18:30etatik 20:30 etara.

Emakumeek sufritzen duten indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna

Azaroak 25 a da eguna, Emakume sailak eta Arrasateko Emakume Kontseiluak, zenbait ekintza antolatu ditu egun honen inguruan.

Ekintzak azaroaren 23an izango dute hasiera, Herriko Plaza Nagusian 19:00retan eta azaroaren 25ean amaituko dira arratsaldeko 18:00retan Sebero Altube plazan, egoera hauek salatzeke egingo den kontzentrazioarekin.



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■

ZALDIBARARETOFUTBOLA



EMAITZAK

A MULTZOA

Betrayer - Lasagabaster	6-3
Maldifas - Makanaki	4-3
Txotx - Iriztu taberna	2-5
Goma2 - Usotz Potroak	6-5
Estu Ta Larri - Bikain Akad.	5-8
Fragel Gol - Chapime Dribling	3-6
Bazar Toki On - Rayo Aldeano	4-4
Saukelu - Scream	2-5

B MULTZOA

Irati STS - AKTA	12-1
EGD - Etxinai	6-2
IKP - Azkena You Know!	1-11
DDK - Full Duplex	3-3
AT Celaya - Abocajarro	8-1
Bin Laden - KJ Basati	1-3
AC Surcos - Etxerat	4-5

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Bikain Akademia	6	3
2. Goma 2	6	3
3. Chap Dribling	6	3
4. Iriztu Taberna	5	3
5. Betrayer	4	2
6. Aurrera Bolie	3	3
7. Usotz Potroak	3	3
8. Estu Ta Larri	3	3
9. Lasagabaster	2	3
10. Rayo Aldeano	2	3
11. Makanaki	2	3
12. Maldifas	2	2
13. Saukelu Scream	1	3
14. Bazar Toki On	1	3
15. Txotx	0	3
16. Fragel Gol	0	3

B MULTZOA

	P	J
1. Etxerat	6	3
2. Azkena YK	6	3
3. DDK	5	3
4. Irati STS	4	2
5. AT Celaya	4	3
6. Komando Alpagat	4	2
7. AC Surcos	2	2
8. EGD	2	3
9. Osama Bin Laden	2	3
10. KJ Basati	2	2
11. AKTA	2	3
12. Full Duplex	1	3
13. Etxinai	0	3
14. Abocajarro	0	3
15. IKP	0	2

PARTIDUAK

AZAROAK 10, ZAPATUA. EPAILEAK

08:50: AKTA - Azkena YK. Fraguel Gol
10:00: Fraguel Gol - Aurrera Bol. AzkenaYK
11:00: KJ Basati - AT Celaya. Aurrera Bolie
12:00: K. Alpagat - Etxerat. KJ Basati
13:00: Irati STS - Etxinai. K. Alpagat
14:00: Bazar T.O - Saukelu Scream. Irati
15:00: Betrayer - Makanaki. Saukelu.S
16:00: IKP - Abocajarro. Makanaki
17:00: Usotz.P - Maldifas. IKP
18:00: Lasagabaster - Iriztu tab. Maldifas
19:00: EGD - Full Duplex. Lasagabaster

AZAROAK 11, DOMEKA

09:50: Estu Ta Larri - Rayo Aldeano. Goma2
11:00: Goma2 - Chap. Dribling. Estu Ta Larri
12:00: Bikain Akad - Txotx. Chapime Drib
13:00: Bin Laden - AC Surcos. Bikain Akad

Atsedena: DDK.

HOBE LASAIAGO

NORGEHIAGOKA BEROA

Joan den astean, partidu ikusgarria jokatu zuten Osama Bin Laden eta Koka Junior Basati taldeek. Hala ere, jokoa hainbat momentutan gogorra izan zen, eta batek baino gehiagok bero-bero amaitu zuen partidua. Hori dela eta, bi taldeei lasaiago ibiltzeko gomendatu gura diete antolatzaileek. Zorionak epaileari, lan zaila izan zuen-eta.

PARTIDU INTERESGARRIA

Oraingo asteburuan, hainbat partidu interesgarri jokatuko dira. Etxerat eta Komando Alpagat taldeek zapatuan jokatuko dute, eta baliteke partidua baino zerbait gehiago izatea jokoan. Eta domeka goizean, Goma2 eta Chapime Dribling izango dira aurrez aurre. Bi taldeak A multzoko goiko postuetan daude, hortaz, badago zerbait jokoan.

GORA ETA BEHERA

IRATI STS ETA AZKENA YOU KNOW

Zaldibarko bi talde veterano hauek aurten ere aurreko postuetan izango dira, eta joan den asteburuan lortutako emaitzak dira horren erakusle. Irati STS taldeak 12 gol egin zizkion AKTA-ri, eta Azkena YK taldeak 11 IKP-ri.

IKP, AKTA ETA ABOCAJARRO

Ezin daiteke esan hiru talde hauek ondo hasi dutenik Zaldibarko Txapelketa. Oraingo asteburuan, jipoi ederra jaso dute hiru taldeek, eta sailkapeneko azken postuetan daude. Eskerrak oraindik puntu dezente dagoen jokoan.

Kenci Arrasatek Gasteizen jokatuko du bihar UPV Arabaren kontra

XABIER URZELAI

Arrasateko saskibalo taldea Gasteizera joan beharko da bihar arratsaldean UPV Araba taldearen kontra jokatuz. Iker Zubiriaren mutilek ezin izan zuten joan den asteko partidua irabazi, eta agur esan zioten azken asteotako bolada bikainari. Bihar, etxeko mutilek beste aukera bat izango dute.

Lau partidu segidan irabazi eta gero, Siglo XXI taldeak etxeko bolada bikainarekin amaitu zuen joan den astean Iturripen jokatutako partiduan.

Argi dago Siglo XXI taldea denboraldian sailkapeneko aurreko postuetan izango dela, taldea helburu jakin batzuekin osatua dago-eta. Federazioak Gipuzkoa mailan aukeratutako jokalariek osatzen dute talde hori, eta gazte horiek ez dute partidurik galdu orain arte. Arrasatearrak, bestalde, lau partidu segidan irabazita inoiz baino konfiantza handiagoarekin zeuden, eta partidu parekatua aurreikusten zen.

Iker Zubiria Kenci Arrasateko entrenatzailearen erronka handiena Siglo XXI taldearen presioa zelan gainditu asmatzea zen, eta horrez gain, kanpoko hainbat



Kenci Arrasateko jokalariek, Tolosaren aurka jokatutako partiduan.

jokalarik garrantzitsuren jokoa haustea.

PARTIDU PAREKATUA

Partidua bizi-bizi hasi zen, jokaldi azkarrekin, eta etxekoak hasieratik aurreratu ziren markagailuan. Lehenengo laurdena amaitu zenerako, etxekoek bederatzita puntu errenta zeukaten (29-20).

Bigarren laurdenean ere etxeko taldeak aldeari eustea lortu

zuen, baina hirugarren laurdenean egoera aldatu egin zen. Donostiarrak aurretik jarri ziren, baina laurdena amaitu aurretik etxekoek hirurogeita bosna berdindu zuten. Azkeneko laurdenean kanpotarrek zorrotzago jokatu zuten, eta azkeneko jokaldietan asmatu eta 103 irabazi zuten. Etxeko taldeak bihar izango du beste bolada on bat hasteko aukera.

Arrasateko xake taldeak borrokan dihardu, zigorra ez delako bidezkoa

XABIER URZELAI

Arrasateko xake taldeak borrokan segituko du, Gipuzkoako Federazioak hiru puntu eta erdi kendu eta gero. Etxekoek ordezko batekin jokatu zuten lehen partidua, eta itxuraz arauz kanpoko da.

Arrasate San Andres xake taldeko partaideak haserre daude Federazioak denboraldiko lehen partidak jokatu ondoren hartutako erabakiarekin. Etxekoek Eibartarren aurka neurtu zituzten indarrak denboraldiko lehen

partidetan, eta hiru puntu eta erdi eskuratu eta gero, Federazioak kendu egin zizkien. Martin Arriaranek talde nagusiarekin jokatu zuen, Isidro Ruizen ordezko, eta Gipuzkoako Federazioak ez zuen hori onartu.

ETXEO XAKELARIAK HASERRE

Arrasateko xake taldea ez dago batere ados zigor horrekin, orain arte ez delako inongo arazorik izan harrobiko jokalariekin jokatzeagatik. Aurten, maila horretan izena eman barik dauden jokalariek ezin dute jokatu, eta etxekoek arau berri hori eza-

gutzen ez zuten, lau jokalarik soilik osatzen dute talde nagusia.

Etxeko xakelariak haserre daude arau horren berri izan dutelako, eta Gipuzkoako Federazioan errekurtsio aurkeztu dute. Eta zigorra samurtu bate ere, Arrasate San Andres taldeko xakelariak ez daude aurrerabikiarekin, eta Euskadiko Federazioa jotzea erabaki dute.

Etxeko xakelariak, zigorren ta ere, lehenengoak dira sailkapenean, Fortuna taldeari irabazi eta gero. Oraingo asteburuan Tolosaren kontra jokatuko du



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

LUZAPENAK

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

Aretx
Taberna

Markole, 5
943 79 20 14



*Zeramika erakusketa
eta salmenta*

*Zure etxeko
txokoak janzten*

Uribarri etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 77 11 63

Kalitateak mugarik ez



ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, PVC, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE



IKER BARANDIARAN

Hamasei ilustratzaileen panel informatiboak, ilustrazioak, liburuak eta komikiak daude ikusgai.

Haur eta gazteen literaturako ilustrazioak hizpide Monterronen

'Euskal irudigileen aretoa' erakusketak euskal ilustratzaileen testigantza erakusten digu

IKER BARANDIARAN

Monterron jauregian euskal irudigileen inguruko erakusketak dago ikusgai. Haur eta gazte literaturan ilustrazioak egiten dituzten hamasei marrazkilarien lana eta historia ezagutzeko aukera eskainiko du abenduaren 2ra arte zabalik egongo den erakusketa honek.

Galtzagorri elkarteak *Euskal irudigileen aretoa* izeneko erakusketa antolatu du Arrasateko Monterron jauregian, liburutegiaren ohiko aretoan. Erakusketa azaroaren 7an zabaldu zuten eta abenduaren 3ra arte ikusgai izango da jauregiko ohiko erakusketa aretoan.

Galtzagorriko partaideek prestatutako erakusketa hau hamasei ilustratzailek egindako jatorrizko marrazkiekin osatua dago. Hain zuzen ere, dagoeneko argitaratuak izan diren bi ilustrazio eta bereziki erakusketa ibiltari honetarako sortu duten ilustrazio bana aurrizki ditzakegu Monterronen bertan.

Hamasei artistek dituzte erakusgai euren lanak, hain zuzen ere, azken mende laurdenean haur literaturako liburuak ilustratu dituzten irudigileak guztiak. Euren lanez gain, artista bakoitzari buruzko panel bana dago eta panelean ilustratzailearen ibilbidea, egindako lanak eta beste hainbat kontu azaltzen dira.

Artista horietako hiru Monterronen egon dira, bisitan joango diren haurrekin topo egin eta

"Literaturako marrazkiak diren arren, erakusketa ez da umeen intereserako soilik"

azalpenak emateko. Esaterako, *Banbulo* pertsonaia marrazten duen Mikel Valverdek azaroaren 7 eta 8an hartu zituen lehen eta bigarren mailako ikasleak. Azaroaren 13an, berriz, Jokin Mitxelena aritu zen; eta azaroaren 15ean, azkenik, Montxok entretenitu zituen. Umeek begirale baten ardurapean egin zituzten bisitaldiak, eta txikienek artista horien irudiekin osatutako puzzleak egiteko aukera izan zuten. Gainera,

denek, opari gisa, marrazki batez apaindutako liburu marrazkizale bana eraman zuten. Erakusketa ikusi ondoren, artistekin 45 minutuko saioak izan zituzten tailerlean.

HELDUENDAKO ERE APROPOSA

Izatez, erakusketaren ildo nagusia umei zuzendutako literatura eta ilustratzeko egiten diren marrazkiak badira ere, erakusketa ez da umei soilik zuzentzen. Izan ere, goizez (12:00etatik 14:00etara) zein arratsaldez (18:00etatik 20:00etara) edonork bisita dezake erakusketa, eta are gehiago, azaroaren 30ean, hitzaldia antolatu dute Galtzagorrikoek erakusketaren harira. Egun horretan, arratsaldeko 18:30ean, Teresa Duranek berbaldia egingo du Monterrongo berbaldi aretoan, *Sexismoa ilustrazioan* gai hartuta.

Literatura ekimen ibiltaria

Galtzagorri elkarteak, 1990ean sortu zenetik hona, euskal haur eta gazte literaturaren sustapena izan du helburu, azken baten literatura maite duen talde langilea da-eta. Urtero biltzarrak, erakusketak eta argitalpenak bultzatu izan dituzte, eta orain, *Euskal irudigileen aretoa* izeneko erakusketarekin buru-belarri dabilta. Galtzagorrikoen esanetan, erakusketaren helburua honakoa da: "Euskal ilustratzaileen eta haien lanen berri ematea, ilustrazioak literaturan duen funtzioa sakontzeko aukerak eskaini eta ilustrazioaren garapena historian zehar ezagutu". Aurrez, Hondarribian egon da erakusketa, eta gerora, Beasain, Zarautz, Errearteria, Tolosa eta Hernanira eramango dute.

KULTURAPILULAK

'Mugarriz mugarri Arrasate ezagutzen' ekimenak Udala aldera joko du domekan

Azaroaren 18an, domekan, *Mugarriz mugarri Arrasate ezagutzen* programaren barruan, beste irteera bat antolatu dute AEDk, Arrasateko Kirol Proiektuak eta Besaideko Gazte Taldeak. Udalako Ingurugiro Eskolan hasiko da txangoa, 09:30ean, eta deialdia egin diote joan gura duen edonori, batez ere, inguruak ezagutzen ez dituzten belaunaldi berriei. Eguerdirako etxean egongo direlakoan, Gazeagako karobiak, Txukurrilloko elurzuloa, Galarragako meatokiak edota San Balerioko koba bisitatuko dituzte.

AEDk 'XV. Arrasate Lehiaketak' en parte hartzeko izenematea zabaldu berri du

AED elkarteak Udalaren, Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, ipuinen, poesien, bertso-paperen, komikien, euskalki-grabazio eta irrati-erreportajeen inguruko lehiaketa bana prestatu du, *XV. Arrasate Lehiaketak* izenpean. Txapelketa horretan Leintz ibarrean bizi, lan egin edo ikasten duten 17 urtetik beherakoek baita nagusiagoak diren Debagoienarrek ere parte hartu ahal izango dute. Lanak AEDra bidali beharko dira 2002ko otsailaren 15a baino lehen, lelo batekin eta gutun-azal itxian.



AMAGIOIA LASAGABASTI

Apokalifitin Kultura Elkartekoak ipuin musikatuak grabatzen harrapatu genituen.

'Putz'ekoak Durangora begira prestaketa lanetan dabilta

IKER BARANDIARAN

Apokalifitin elkarteak, hau da, *Putz* aldizkaria bi hilean behin kaleratzearen errudunak, buru-belarri dabilta Durangoko azokarako argitaratu gura dituzten produktu berriei azken ukutia ematen.

Badirudi *Putz* aldizkariako azkeneko aleak harrera ezin hobea izan zuela. Asko berba egin zen haren azal eta kontrazalaz: fraideak, Bin Laden, kooperatiba, Abiadura Handiko Trena eta Iturgaitzen kontura, hain justu. Poliki-poliki gorpuzten ari den aldizkaria dugu, Arrasaten jaio, ibarrean elikatu eta herrialde askotako kolaboratzaileen laguntzarekin Euskal Herrian ezagun egiten hasi dena.

Apokalifitin kultura elkarteak partaideek, aurreko aleak jasotako harrerarekin pozik baina beti bezain langile, ez dute atsedetik hartu eta Durangoko Libu-

ru eta Disko Azokarako produktu berriak prestatzen buru-belarri dabilta.

IPUIN MUSIKATUEN DISKOA

Putzen hamabigarren aleak, opari gisa, hamabost idazleren ipuin musikatuak osatutako CD bat eramango dute: Mikel A. Irizar, Julen Azpeitia, Balen Tramon, Eneko Barberena, Nora Isasi, Facundo K., Diego Martiartu, Mirian Txintxurreta, Juanba Erauskin, Jon Arano, Asier Serrano, Paddy Rekalde, Gari Berasaluze, Andoni Berriotxoa eta Pako Aristi. CDak *Metroko literak* izena du eta metroko istorioak biltzen ditu.

Apokalifitinek Asier Serranoren *Hoteleko kontuak* liburua ere argitaratu du, eta aldizkariari dagokionez, ohiko sailez gain, *Metroko literak* ipuinen gehigarria, Aitor eta Mikel Gorosabeli elkarrizketa eta Eduardo Galeanoren inguruko informazioa eta saiakera landuko ditu.

E, TXO!

GAZTEKONTUAK / TATUAJEAK, HAZIZ DOAN JOERA

**ASTEBURU ARRAKASTATSUA
ARRASATEKO GAZTETXEAN**

Asteburuan gaztetxean antolatutako ekitaldiek harrera polita izan zuten. Egubakoitzean, MCD eta Banda Municipalaren kontzertuan, 300 lagun bildu ziren eta giro polita egon zen. Zapatuan, Bilbon Gaztetxeen alde egindako kale agerraldira jo zuten, eta azkenik, domekan, Juanlu Escudero eskainitako *Rie! Soy un calavera* bakarrizketa ikusten ehun lagun izan ziren. Zapatu honetarako, berriz, Iparraldeko Ozke rock taldea izango dute.

TXIKILANDIAN BEGIRALE

Urtero moduan, Txatxili-purdi euskara eta aisialdi elkarteak deialdia egin die herriko gazteei, Gabonetan Musakolako kiroldegian ospatuko den Txikilandia haur parke erraldoian begirale moduan lan egiteko. Hain zuzen ere, puzgarri zein tailerretan umeekin jolastu, txartelak saldu, igerilekuan jolasak egin edo beste eginkizun batzuetarako. Interesatuta bazaudé, eman izena lehenbailehen Txatxili-purdin bertan edo deitu 943795446 telefonora azaroaren 30a baino lehen.

'GAZTETXULO'K URTEBETE

Gaztetxulo aldizkaria Euskal Herrian banatzen hasi zela urtebete bete berri da, eta arduradunek ez dute data hori alde batera utzi gura izan. Urteurrena ospatzeko, ale berezia egin dute, eta urte osoko erreportaje eta elkarrizketa deigarrienak gogora ekarri dituzte. Horrez gain, astebetean Euskal Herriari itzulia egiten dabilta autobusez. Autobus horrek musika afrikarra eta antzerki saio bat eramango ditu, baita beste sorpresa batzuk ere. Baliteke Arrasaten agertzea.

**Gorputza marrazkiz
apaintzea, gorantz
doan zaletasuna**

IKER BARANDIARAN

Duela urte batzuk, legionarioek eta motozaleek soilik eramaten zituzten tatuajeak gorputzean. Gaur egun, berriz, ia edonork darama marrazkiren bat gorputzean, eta joera haziz doa gazteen artean.

Argi dago tatuajeak boladan dardela. Geroago eta jende gehiagok egiten ditu marrazkiak gorputzean, gehienak tamaina txiki-koak izaten badira ere.

Gaur egun, tatuajeak egiten dituzten lau denda daude Arrasaten, eta ibarrean ez ei dago beste toki finkorik. Horregatik, arrasatearrez gain, beste herrietako gazte eta nagusiek ere Arrasatera jotzen dute tatuajeak egitera,

*Arrasaten tatuajeak
egiten dituzten lau
denda daude eta
bailarako bakarrak
ei dira*

baita MUko ikasleek ere.

GAZTEEK ZALETASUN HANDIENA

Arrasateko tatuaje egileek diotenez, gurasoen baimenik bako adin txikikoei ez diete tatuajerik egiten. Gazte gehienek marrazki txikiak egiten dituzte: "Tribalak, batez ere, baina baita dragoiak,



Arrasateko tatuajegileek era askotako lanak egin izan dituzte dagoeneko.

ipotxak, ilargiak... ere. Hasieran, marrazki txikiak egiten dituzte, merkeenak, 8.000 eta 15.000 peze-

ta inguruak. Geroxeago, handiagoak egitera animatzen dira batzuk".

LOTSABARIK / Oihan Zubizarreta

"Pentsaera puritano samarra daukagu"

IKER BARANDIARAN

Oihan Batxilergoa ikasten dabil. Hainbat zaletasun ditu, eta horien artean, idaztea gogoko du. Urruzuno literatura lehiaketan bi aldiz izan da saritua, eta sari gisa European zehar bidaiak egin ditu.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Gustuko ditudan zaletasunekin aurrera egin eta ogibidea, ahal bada, hortik jo. Zoriontsu izatea.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

36 urterekin. Antzera, espero dut. Pozik bizitzen ahalegindu

eta gustuko ditudan gauzak egiten jarraitzea.

• Zein da, zure ustez, adin ideiala?

Orain arteko guztiak. Denek esperientzia eta bizipenak ematen dizkizute.

Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Zoriontsu izateari.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Oso gauza gutxi.

• Eta zerk arduratzen zaitu gehien?

Munduan eta Euskal Herrian bizi ditugun egoera latzak.

• Zer falta zaio Arrasateri gazteendako?

Mugimendu kultural handiagoa, alor guztietan.

• Zer egingo zenuke milioi bat pezetarekin?

Bidaiatu.

• Munduko zein lekutara joango zinateke?

Edozein lekutara. Nepalera, adibidez.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Eskuak.

• Arrasaten erraz ligatzen da?

Ez, hotzak eta itxiak garelako, sexu alorrean ere bai. Pentsaera puritano samarra dugu.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Denari. Itxura ez da guztia, baina hasieran fisikoak seduzitzen du. Gero, izaera ezagutu behar...



ADINA: 16 urte • IKASKETAK: Batxilergoa • ZALETASUNAK: Idaztea
LIBURU BAT: *Los pilares de la tierra* • FILM BAT: *La lista de Schindler* • MUSIKA TALDEA: Ez dakit • KIROL TALDEA: Bat ere ez.

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

ION LEHIOAK

Leihoak
Ateak
Horma armairuak
Zoruak

Kanpantorrea, 2
Tel./faxa: 943 79 11 35
20500 ARRASATE

**UARKAPE
J A T E T X E A**

Bueltan gaituzu!!!

- Eguneroko menuak
- Bokatak
- Plater konbinatuak

Otalora Lizentziaduna 10. Tel.: 943 77 20 04

BEHEKODENDATIK

Gorka Uriarte

GORKA PELUKERIXAKUE

XABIER URZELAI

Bederatzi urte daroie Gorkak bere izena dauken pelukerixan lanien. Ferrerias kalien daukon pelukerixia zabaldu euenien, Aretxabaletan eukena ixtie erabaki euen, danera ez zalako aillegetan. Jaiotzez atxabaltarra bada be, Mondragoen bizi da, eta hamengo lasaitasune eta girue gustetan jako.

Amets bat?

Denboraldi baterako New Yorkera juetie bizi izetera.

Amets txar bat?

Bakarrik buketie.

Egin dozun azken biajie?

New Yorkera.

Txartel horixe, zeñei?

Aznarrei.

Eta gorrixer?

Zapaterori.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

Moulin Rouge / *Alicia en el país de las maravillas* / *Donna Summer*.

Drogak legalizauko zittukie?

Ez.

Eta prostituziñue?

Bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Tabernetako txikiteue.

Ze gustetan jatzu Mondragoetik?

Jentie, girue, eta herrixen dagoen lasaitasune.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Leku batzuetako etxiek zaindu, eskaintza kulturala haunditu, etxiek merketu eta gaztiei aukera gehixago emuten ahaleginduko nitzake.

Eta lehendakari izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?


Aurrekue, baiñe Euskal Herrixen.

ARRASATE PRESS barrixe gustau jatzu?

Aurrekue deigarrixagoe pentsetan jaten, baiñe idea ona izen dala uste dot.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat.

Beste pelukero bat.



"Pelukerue izengo ez banitz, sukaldarixe izengo nitzake, edo moda kontuetan ibilliko nitzake"

Eta ezagutu nahiko zeunkiena?

Aktoreren bat-edo.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Neure buruakin.

Telebistako programa bat?

Eta irratikue?

TVE2 kataiko informatibue / Loiolako Herri Irratixen dagoen bat, sukaldaritzaren gaiñekue.

Zertan gastauko zeunke dirue?

Erropie, etxe barri bat, biakiek...

Lanien ze da gehixen gustetan jatzuna?

Pertsona baten itxurie hobetarako aldaketie.

"Esango neuke Arrasateko jentie oso balientie dala itxurie aldaketako orduen, arazo gutxi euki dot"

Eta gutxien gustetan jatzuna?

Pertsona batekin ez asmaketie.

Bronkarik izan dozu?

Beti egoten da zoezer, baiñe zorionez uliek konponbidie dauko.

Ze euki biher da pelukero ona izeteko?

Lan hau gustetie, sentidutie, gustora egotie, eta argi eukittie ez dala ulie moztie bakarrik. Kreatibitate apur bat be euki biher da.

Eta buketetako, ze egingo zeunke neure uliekin?

Ez daroiezu txarto, baiñe apur bat aldatuko neuskitzu. Estilue bardin itxitie, apur bat moztu, gehixago nahastu eta bolumen apur bat emun.

NIREBIDAIAHURA/ Fernando eta Mertxe

Ipar Lurmuturrera / 2001eko abuztuan

Fernando Gindi eta Mertxe orain dela gutxi ezkondu dira, eta ezkonbidaian Ipar Lurmuturrean izan dira. Joaneko bidaia lagun batzuekin egin zuten, Txo, Lumas, Txixas eta Mari Carmenekin, hain zuzen, baina bueltako bidea euren kasa egin zuten.

Kilometro guztiak ez zituzten hegazkinez egin, ezta auto edo autobusez ere. Euren BMW motoaren gainean

joan ziren Norvegian dagoen Nordkapp edo Ipar Lurmuturrera. Guztira hamasei egun behar izan zituzten itzulia egiteko, eta Gindi txundituta bueltatu da: "Ipar Lurmuturra oso ikusgarria da, haraino motoz joatea ametsa izan da guretako, zaila da azaltzea".

Bikoteak badaki ezkonbidaia ez dela oso ohikoa izan, baina biek ere ez lukete ezergatik aldatuko: "Gastatu dugun diru beragatik, Kanadara edo Kubara joan gintezkeen lasai asko, baina guk ez genuen hori gura". Ez da ez bidaia merkea izan, motoaren mantenuaz gain, gasolinan ere dezente gastatu dute-eta: "Bostehun eta zazpiehun mila pezeta artean gastatu dugu bidaian. Motorrari gupilak aldatu eta mantenu osoa egin behar izan diot, eta gasolinan ere beste 150.000 pezeza gastatuko genituen".

Aldibi etxearen laguntza izan dute bidaia egiteko, eta bidaia hori moto gainean egin duten lehen arrasatearrak izan dira. Norvegiako fiordoak ikusgarriak iruditu zaizkio Gindiri, baina gauza asko ikusteko gogoarekin bueltatu da: "Bidaia polita izan bada ere, ez dakit berriro egingo nukeen. Ikusgarria bezain gogorra izan da, eta helburua Ipar Lurmuturrera joatea zenez, bidean gauza asko utzi ditugu ikusi barik. Holandan eta Belgikan izana naiz, baina gustura ikusiko nuke Danimarka. Orain, beste modu batean egingo nuke bidaia, lasaiago".

XABIER URZELAI



Arrasate Motozale Elkarteko kideak Lurmuturrean.

"Bidaia ikusgarria bezain gogorra izan da, eta garestia"

"Txo-ri esker egin genuen bidaia, hark antolatu zuen guztia"

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

Altzariak
Diseinua
ApainketaM
ARENAZABizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 71173

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Pertsona edadetuek ondo hartzen dute laguntasuna, baita egunerokotasuna bizitzeko oinarritzko laguntza ere.

Hirugarren adinekoei laguntasuna eman eta lana kentzeko aukera

IKER BARANDIARAN

Hirugarren adinekoa izateak abantailak eta desabantailak izango ditu, zalantza barik, baina zorritzarekin zenbait kasutan bakardadearekin lotuta egon daiteke bizitzeko aldi hori.

Egun bizi dugun bizimodu azkar eta geldiune gutxiko honetan, denbora laburra izaten dugu albokoei emateko.

Arrazoi horiengatik eta pertsona nagusiago egiten den neurrian zelanbait moteldu eta fisikoki indarra galtzen duelako, beste batzuen laguntzaren premia izan ohi dute nagusienek. Eta halako kasu batzuetan, sendiak ezin dio nahikoa lagundu, edo pertsonak berak ez du gura izaten. Horregatik, agureei laguntzeko jende eskaera geroago eta handiagoa da.

UDALAREN DIRULAGUNTZA

Halako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa eta gizabana-koak egon badaude, eta zaharrenei halako laguntzaile bat kon-

tratatzeko gastu larregi eragin ez diezaien, Arrasateko Udalak dirulaguntza batzuk zehaztuta dauka, betiere adin, diru sarrera eta pertsona nagusiaren osasuna kontuan hartuta. Udalak Goiz Argi izeneko enpresa enkante bitartez kontratatuta dauka bost urterako (2002an bukatuko dena),

Lehenik Udaleko Gizarte Saileran jo

Arrasateko Udalak eta Goiz Argi enpresak bost urterako akordioa dute, Udalean giza laguntzak eskatzen dituztenei enpresa honek zerbitzuak eskaini ahal izateko.

Era berean, Goiz Argiko langileek eta adin nagusiko bezeroek kontratua sinatu behar izaten dute, bi aldeek bete beharreko baldintzak zehazteko.

eta pertsona nagusiak laguntzaile behar izanez gero, egunean gehienez bi ordu eta erdirako kontratatuz gero, Udalak kostuaren portzentzaje altua ordaintzen du.

LAGUNTASUNA EDO LAN TXIKIAK

Goiz Argi enpresako langileek jende nagusiari bi eratako zerbitzuak eskaintzen dizkiote. Bata, etxekoa, eta bestea, pertsonala. Lehenengoari dagokionez, egunerokotasunean etxean behar izan ditzakeen lanak egiten dizkiote. Bigarren kasuan, berriz, haren bakardade uneetan laguntasuna ematea, garbitzea, jaten edo janzen laguntzea, hizketaaldia piztea, medikura zein beste errekadutara laguntzea eta hala-koak errazten dizkiote. Betiere, kasu bakoitzaren arabera.

Goiz Argi enpresako langile batek esandakoaren arabera, "laguntza eskatzen duten batzuk gorputzez ondo daude, sasolian, baina ordu asko bakarrik igarotzen dituzte, eta hori ez da oso ona. Ondo hartzen dute beste norbaitekin egotea, berba egitea..."

LABUR

Uribarriko gizarte etxean osasunaren inguruko hitzaldiak egiten dabiltza azaroan

Uribarriko gizarte etxeko batzarkideek neguko egun hotzei aurre egin eta etxetik irteteko aitzakia jarri diete auzoko nagusienek. Joan den asteko eguaztenean, *Gaixotasunaren inguruko gehiegizko ardurak, hipokondriakoak* gai hartuta hitzaldia egin zuten, eta azaroaren 28an, berriz, Mercedes Acera hizlari izango dute *Gure bel-durrei aurre egin diezaiegun* gaiaren gainean.

Erguin auzoan traba arkitektonikoak kentzeko dirulaguntza eskatu berri dute

Udalak Erguin berriro urbanizatzeko asmoa du. Aldundiko Gizarte-kintzak traba arkitektonikoak kentzeko inbertsioak finantzatzeko dituela jabetuta, Udalak laguntza eskatu dio. Erguin kaleko 5, 7, 9 eta 11. atariaren parean pasabidea uzteko eta Erguingo biritan oinezkoen lehentasuna emateko lanendako, batez ere.

Musakolako zaharren etxean Gabonetako ekintzak antolatzen hasiko dira laster

Musakolako zaharren etxeko batzarkideek jakinarazi digutenez, urriaren bukaeran Najera eta Biasterira egindako bidaia oso ona izan zen. 68 lagun batu, eta Najera Santa Maria de la Realeko eliza eta herri zaharra bisitatu, eta Biasterin bazkaldu zuten. Orain, atsedendaldia txikia hartu eta laster batzarrak egiten hasiko dira Gabonetako programa antolatzeko; karta txapelketak, omenaldiak...

ZAHARRAKHOTIK

Julia Berezibar "Salturrikua"

ETXEKOANDREA

Juli aspaldiko ezaguna da ARRASATE PRESSen, senarra zen Sabin Arrietak eta Julik berak erretratu zaharrak ekartzen zizkiguten-eta.

Arrasaten jaio baina gaztetan kanpoan ibilitakoa zara?

Bueno, 1916an jaio nintzen, Mondragoen. Zortzi anaia-arreba ginen, ni txikiena. Errabalean hasieran, Aizkora dena egon zen lekuaren gainean, baina hiru urterekin Iturriotz kalera joan ginen. Han mojetan ibili, eta zortzi edo bederatzirte nituela, Hondarribiara joan nintzen, moja frantsesen eskolara, 14 urte arte. Moja gogor samarrak ziren, baina gustura ibili nintzen.

Familiak harategia zeukan, han lanean ibili zinen?

Bai, Iturriotz kaleko hiru-



garren zenbakian Salturrixena harategia geneukan, baina nik ez nuen han lan askorik egin. Gehienbat, gerra ostean, Sabinekin ezkontzearekin ia parera, errazionamendu garaiak zirenean, okeleko kupoiekin ni ibiltzen nintzen, kalkulagailurik ez eta nik buru ona neukalako.

ASESORIA ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



Danona

KARROZERIAK

Konponketak txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06



ARRASATE
Julen Etxebarria
Irailaren 23an 4 urte. Umezaintzako laguntxoeren partetik, zorionak!!!



ARRASATE
Garazi Larrea
Irailaren 24an 3 urte. Umezaintzako laguntxoeren partetik, zorionak!!!



ARRASATE
Ane Kortabarria
Irailaren 27an 5 urte. Umezaintzako laguntxoeren partetik, zorionak!!!



ARAMAIO
Mikel Irazola
Irailaren 29an 3 urte. Umezaintzako laguntxoeren partetik, zorionak!!!



ARRASATE
Xabier Arregi
Irailaren 30ean 5 urte. Umezaintzako laguntxoeren partetik, zorionak!!!



ARRASATE
Ane Mendizabal
Urriaren 4an 5 urte. Umezaintzako laguntxoeren partetik, zorionak!!!



ARRASATE
Naiara Armendia
Urriaren 14an 5 urte. Umezaintzako laguntxoeren partetik, zorionak!!!



ARRASATE
Patxi Urrutia
Azaroaren 14an 4 urte. Umezaintzako laguntxoeren partetik, zorionak!!!



ARRASATE
Odei Marcos
Azaroaren 18an 5 urte. Umezaintzako laguntxoeren partetik, zorionak!!!



ARRASATE
Jone Soto
Azaroaren 18an 5 urte. Umezaintzako laguntxoeren partetik, zorionak!!!



ARRASATE
Haritz Ezpeleta
Azaroaren 20an 5 urte. Umezaintzako laguntxoeren partetik, zorionak!!!



ARRASATE
Rebeka Torres
Azaroaren 23an 23 urte. Txatxilipurdikoen partetik, zorionak!!!



ARRASATE
Belen Aranburuzabala
Azaroaren 9an urtebete-
tzea. Zorionak!!! Etxeko-
ak.



ARRASATE
Eneritz Atxaga
Azaroaren 18an 26 urte.
Zorionak!!! Lehengusuak.



ARRASATE
Leire Etxaniz
Azaroaren 10ean 26 urte.
Zorionak!!! Koadrilaren
partetik.



ARRASATE
Agustin Elortza
Azaroaren 16an 60 urte.
Zorionak!!! Etxekoeren
partetik.

BABESLEA

Juan Manuel Berrueta

ARGAZKILARIA

- Estudioa
- Erreportaiak
- Bideoa
- Argazkizaleen txokoa



Iturriotz kalea, 24. ARRASATE. Tel.: 943 79 19 71 / 658 75 58 18.



Adi!

Hurrengo zenbakian, azaroaren 16tik 23ra bitarteko zorion agurrak argitaratuko ditugu. Argazkiak martitzera arte jasoko dira ARRASATE PRESSEko egoitzan.



**Zorion itzazu zure lagun
eta senitartekoak.**

Zatoz Arrasate Pressera argazki
batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.



GRUPO **RKUZ** 1950-2001




TXE MODEL
MUGURTZU ALTZARIARI

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



RKUZ
ALTZARIARI

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RKUZ
ELEKTRAGAILUAK
Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert

RKUZ
SUHARDE INTEGRALA
Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.
Eskerrik asko emandako konfiantzagatik

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa	943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa	943 76 62 46
Ertzaintza	943 76 53 40
Osasun Etxea	943 76 24 40
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23
Odol emaleak	943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak	943 76 51 06

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
	20:30	20:45
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

LABURRAK

EUSKARAZKO ALFABETATZEA

Doako euskarazko eskolak jasotzeko aukera dago kultura etxean. Astelehenean, martitzenetan eta eguaztenetan izaten dira, 18:00etatik 20:00ak arte. Ikastaroak martxoaren 22ra arte iraungo du. Izena emateko Udalera jo beharko da.

AUTODEFENTSA IKASTAROA

Datorren astean, emakumeendako autodefentsa ikastaroa izango da San Martin Ikastolan. Doan izango da, astelehenean egubakoitzera arte, 18:30etik 20:30ak arte. Izena emateko 945445323 telefonora deitu behar da. Komeni da ikastarora jantzi erosoak eramatea. Itur Zuri emakume taldeak antolatatu du ikastaroa, Arabako Emakumeen Asanbladaren bitartez. *Ez niri ezta beste emakume bati ere. Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako kanpaina* izena du.

FRUTAGINTZA ETA INAUSKETA

Oraingo zapatuan hasi da Udalak antolatutako frutagintza eta fruta arbolen inausketa ikastaroa. Hamazazpi lagunek eman dute izena. Zapaturo elkartuko dira, datozen bost zapatuetan, 09:00etatik-13:00etara kultura etxean.

JOLASEN GAINEKO OHARRA

Aramaioko joko eta jolasak libururekin batera, Udalak eskaera bat bidaliko die herritarrei: liburu horretan ez dagoen jolasik ezagutzen gero, Udalarekin harremanetan jartzea, hain justu ere. Horrela, liburuen hurrengo edizio baten jolas hori ere sartuko dute. Informazioa emateko 945445016 telefonora deitu beharko da.

KULTURA

Dantzaldia, txokolate-jana, Bermut-dantza eta bestelakoak San Melixenetan

San Martinen ondoren, San Melixenak datoz, Gantzaga auzoko jaiak. Eta, jakina, dena gertu dago astebururako. Zapatuan, goizean goiz ekingo diote kanpai eta suziriekin; gero, 12:00etan meza nagusia izango da, Aretxabaletako abesbatzak kantatutakoa (bukaeran kontzertu txiki bat emango da elizan bertan). Eta goizari amaiera emateko, Larrea anaiek kaleak alaituko dituzte trikitixa doinuekin. Arratsaldean,

17:00etan segituko du festak; umeen jolasak eta mus txapelketa izango dira orduan. Eta gau partean, Etxabe anaiek alaitutako dantzaldia izango da 23:00etan, eta 03:00etan, txokolate-jana.

Domekan, bestalde, meza izango da auzoko hildakoen alde 11:00etan. 11:30ean Lagun-Artean dantza taldeak saioa eskainiko du eta 12:00etan Gantzagako XXI. Txirrindulari Igoera izango da. Txikiteroek 13:00etarako dute deialdia; tarte horretan, Bermut-dantza izango da Larrea anaiekin. Bazkalostean, 17:00etan, tute txapelketa izango da, eta 20:00etan jaiak agurtu egingo dituzte hurrengo urte arte.

Edozelan ere, San Melixenen barruan, azaroaren 30ean, bertso afaria izango da



SAN MARTIN EGUNA

Iazkoan baino lagun gehiagok parte hartu dute aurtengo partxis lehiaketan

Arrakastatsua izan da San Martin Egunaren ospakizunen barruan jokaturako partxis lehiaketa. Txirritola elkarteak antolatuta, aurreko bigarren aldia izan da, eta 56 lagunek parte hartu zuten; iaz baino gehiago. Horiatik hiru irten ziren garaile: gazte mailan (6-12 urte) Andoni Beitia; erdiko mailan (13-16) Jokin Balanzategi; eta nagusien mailan (16tik aurrera) Loli Lasaga. Denek eskuratu dute "Txirritola garaikurra". Horrez gain, gazte mailako irabazleari 10.000 pezetako bonoa eman diote Arrasateko Discopolis dendan gastatze-



ko. Nagusiek, berriz, 15.000na pezeta poltsikoratu dituzte. Txirritolak lehiaketaren balorazio positiboa egin du.

BERTAKO KONTUAK

LAMINAK

Oso itxura ederreko emakumeak ei ziren; ile luze-luzea zeukaten, eta urrezko orrazi batekin orrazten zuten. Hankak ahateenak modukoak zituzten; oiloen tankerakoak zituztela ere entzun dugu. Ipuin baten, gainera, gizon itxuran agertzen da sorgin bat.

Izaki horiek okerrak dira, txarrak, horregatik ezin izaten dira eliza barrura sartu. Gure lekuko arabera, Aramaion leku hauetan agertzen ziren: Sorgin Zubin (Ibarran), Afasta aldeko zubi baten (Zabola eta Untzilla artean), Errotabarritik gora muna gainetan, Goikorrota inguruan eta Beetixen (Gantzagan); hori leku zehatzei dagokienez. Bestela, erreka zulo eta erreka konkretan agertzen ei ziren.

BOTE PRONTOAN / Patxi Aizpurua · Liburuaren idazlea

"Gaur egungo umeek oso asti gutxi izaten dute jolaserako; denbora libre gutxi geratzen zaie"

Aste bukaeran *Aramaioko joko eta jolasak* izeneko liburua aurkeztu dute. 15 urteko lanaren emaitza da. 1985ean hasi ziren datuak biltzen. Gabiñe Intsaustik eta Patxi Aizpuruak idatzi dute liburua, eta Iban Astondoak marrazkiak egin ditu. Aramaioar guztien etxera bidaliko dute liburua, Zuiako koadrilaren aldizkariarekin batera. Baina, bien bitartean, hara Patxi egindako aurrerapentxoak:

Nondik nora jo duzue lana egiteko?

Ibarrara jo genuen lehenengo; han, Elejalde abade jaunarekin berba egin genuen, eta hark eman zigun hasiera, berri emaileak... Adineko jendearekin hasi ginen, gero haien seme-

alabekin eta gero ilobekin. Hortaz, hiru belaunalditan egin dugu lana.

Jolasteko ohitura asko aldatu da?

Bai. Gaur egungo umeek oso asti gutxi izaten dute jolaserako; mila gauza egiten dute eta denbora libre gutxi geratzen zaie. Gaur egungo gizartearen eredu, helduek darماغun martxa kutsatu diegu. Bestalde, gaur egun, informatikaren eraginez, isolatu egiten gara. Ezin da ukatu informatikaren indarra eta balioa inondik inora, baina, nik uste, dugun denbora libre guztia nor bere gelan eman beharrean, badagoela besterik.

Era berean, lehenengo jolasetan ibiltzea baino, askok gurago izaten dute futboleak, saskiba-



loian... ibiltzea.

Zelakoak ziren lehenengo jolasak?

Baserriarekin, inguruarekin eta urtaroarekin zeuden lotuta; umeak irudimena erabili behar izaten zuen. Orain, berriz, jostailu-egileak erabakitzen du jolasak zelakoak izango diren.

Oraindik jolasten da betiko joko horietako baten batera?

Arropekin moduan, jolasak ere moda kontuak izaten dira. Adibidez, karta-jokoak oraindak ere indarrean daude, batez ere, herri txikietan.

Liburuan agertzen den jokoren bat...


Dale fuerteka, Asto-astoka, Kromoak, Asakaska, Kui-kuika, Txoizo-mortzillie...

ERRETRATUZAHARRA

Accion
Catolica
gogora ekarriz

Hara zein txintxo ipini zen oraingo asteko neska taldea argazkian irteteko! Accion Catolicakoak dira. Hortxe daude, klaustroetan, Conchita Arana irakaslearekin. Domeka goizetan, ohitura zuten meza eta gero elkartu eta kristau-ikasbidearen gainean berba egitea. Eta batzuetan dantzak eta jokoak ere egiten zituzten. 50. hamarkadaren hasiera zen argazkian.

Hauexek agertzen dira argazkian:
1- Conchita Arana, 2- Mertxe Alegria, 3- Esther Elizondo, 4- Maria Luisa Oruna, 5- Conchita Altuna, 6- Laura Benítez, 7- Aurora Corcuera, 8- Mari Vega, 9- Dolores Jauregi, 10- Esther Bidaburu, 11- Mariana Langaran, 12- Arantza Balerdi, 13- Maria Angeles Unamuno, 14- Arantza Ruiz, 15- Mari Carmen González, 16- Conchita Ugalde, 17- Pilar Zubillaga, 18- Mari Luz Uranga, 19- Elena Legorburu, 20- Arantza Atxa, 21- Mertxe Iartza, 22- Asun Azula, 23- Mari Carmen Ibeas, 24- Mari Tere Balanzategi, 25- Rosita Agirre, 26- Pilar Ubago, 27- Miren



Langaran, 28- Maria Jesus Bidaburu, 29- Milagros Berezibar eta 30- Blanca Beitia.

Accion Catolica elkarteak Iturriotz kaleko 33an zuen egoitza. Gerra aurretik Centro Catolico izena zuen; hemen, Arrasaten, XX. mende hasieran sortu zen. Orduan, Alderdi

Karlistaz gain, ez zegoen beste alderdirik, eta sozialismoa sortu zenean, hari babesa emateko sortu zen Centro Catolico. Sindikatu katolikoa zen eta apaizen ardurapean zegoen. Gero, ELA eta gainerako sindikatuak sortu zirenean, Centro Catolico desagertu egin zen sindikatu moduan, eta zentro

moduan segitu zuen, bazkideekin.

70eko hamarkadan desagertu zen Accion Catolica.

Argazkia: Mariana Langaran
Informazioa: Mariana Langaran eta On Pedro Salaberria
Urtea: 50eko hamarkada

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Erdialdeko
ikuspegi
orokorra


Laurogei urtean gauzak asko aldatzen dira, eta Argazki hau aproposa da Arrasatek azken urte hauetan izan duen garapena ikusteko. Roneo lantegia handitu barik zegoen oraindik, eta Elma eraiki barik.

Arrasateko erdialdetik kanpo eraikitako auzoak ere askoz geroago egin zituzten. Aldatu ez den gauza bakarretakoa Udalatx da.



± 1920

Argazkiaren azpialdean Cerrajerako teilatua azaltzen da, eta Garibai etorbidea ere argi eta garbi ikusten da.



2001

Egin dituzten eta egiten ari diren etxebizitzak asko aldatu dute ikuspegia. Nondik agertu dira Altamira eta Garibaiko dorrea?

**ANTIQUARIO,
BROKANTE ETA
BILDUMEN
ARRASATEKO
1. AZOKA**

Azaroaren 16tik 18ra
Goizean 11etatik 14.00etara
eta arratsaldean,
17.00etatik 21.00etara.

**ARRASATEKO
UARKAPE PILOTALEKUAN**

Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak, atek, oholtzak, leihoak etab.



AROSZTEGIA
LAGUN

Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baseria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Izcue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGÍ PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./ Faxe: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

ARANZABAL



KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83



ARRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53



Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

Iturgintza • Bainuak
Gasa • Berogailuak



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

Margoak

APAIN

Mar go eta apainketa

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketak • Larruzko gauzak • Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1
Tel./Fax: 943 79 76 03

Gida honetan azaldu
nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91**
telefonora

**CORSA
BERRIA
SRi**



Zure burua auto honetan ikusi gura zenuke



**CORSA
BERRIA
SRi**

**1.4
16 v
90 zp**

Opel-ek Corsa SRi berria aurkezten dizu.

Prestazio handiko diesel motorrak:

1.4 16v 90zp eta SRi ekipamendu osoa **serieko ABSrekin**.

Gutxitan izango duzu horrelako aukera bat.

Pasatzen utzi behar duzu?

Orain, prezio ikusgarrian:

1.665.000 pezeta.* Serieko ABSrekin.

Corsa SRi berria, baita motor hauekin ere:

1.2 16v 75zp eta dieselean 1.7 16v 65zp eta 1.7 DTI 16v 75zp.

Guztiak ere serieko ABSrekin, hiru edo bost aterekin.

Diesela 1.7 DI 16v 65zp: 1.735.000 pezeta.**

www.opel.es

OPEL CREDIT

Opciones
1.2.3

1, 2, 3 aukerak: beti auto berria izateko aukera errazena.

* 10.007 €. PVP Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria Penintsulan eta Balear Uharteetan, Corsa (3 ate) 1.4 16v 90zp. Garraioa, BEZ, matrikulazio zerga, sustapen-deskontua eta Prever Plana barne.

** 10.427 €. PVP Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria Penintsulan eta Balear Uharteetan, Corsa (3 ate) 1.7DI 16v 65zp. Garraioa, BEZ, matrikulazio zerga, sustapen-deskontua eta Prever Plana barne. Ikusten diren haguak eta lainotako faroak aukerakoak dira.

OPEL

**TALLERES
OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA

Zerbitzu Ofiziala

TAKOLO AUTOAK

San Andres, 10.D. Tfnoak. 943 77 30 10.

ARRASATE